# KAIXO

URRETXUKO UDAL ALDIZKARIA




## Udal hauteskundeak 2007

## Amaya Valdemoro Madariaga
una figura del basket con sangre urretxuarra

## Lourdes Esnaola
28 urte ezinduen munduan murgilduta

92. ALEA
2007ko maiatza




Ale honetako laguntzaileak:
*JESUS MARI ALBERDI*
*FCO. JAVIER AGUADO*
*KOLDO ARGANDOÑA*
*LUIS AZPITARTE*
*IRENE CALVILLO*
*MIREN CASTILLO*
*JON CASTRILLO*
*ESTITXU GOMEZ*
*PELLO GONZALEZ*
*ANA ISABEL ITURBE*
*IDOIA NARBAIZA*
*JABIER OTERMIN*
*MAITE QUEVEDO*
*KISKITZA UGARTEBURU*
*Mª CARMEN VIEDMA*

Kaixoko Argazkilaria:
LUIS ANGEL TELLEZ

Lege Gordailua:
SS/678/93

Konposaketa:
ERROTAPRINT

Inprimaketa:
Iparragirre, S.A.

Kopurua:
3.500 Ale

KAIXOk ez du bere gain hartzen derrigorrez aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

*KAIXO no se identifica necesariamente con las opiniones de sus colaboradores, ni se hace responsable de las mismas*

Ez bazara Urretxun bizi eta **KAIXO aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu**, eman zure helbidea 943 03 80 88 telefonoan edota kultura.ur@urretxu.net helbide elektronikoan.

----

*Si no vives en Urretxu y* ***quieres recibir la revista KAIXO en tu buzón*** *, déjanos tu dirección en el teléfono 943 03 80 88 o bien en kultura.ur@urretxu.net*

# aURKIBIDEA KAIXO

*92. alea - 2007ko maiatza*












3_ALKATETZA
4_HAUTESKUNDEAK
9_ERASE UNA VEZ...
URRETXU TXUKUN_10
12_KALEKO IRITZIAK
13_EUSKAL ABIZENAK EUSKAL GRAFIAZ
LEHIAKETAK 2007_14
16_25 URTE: MUSIKA ESKOLA ETA OSTADAR
20_ELKARRIZKETA: LOURDES ESNAOLA
SOCIEDAD DE SOCORROS MUTUOS IPARRAGUIRRE_24
26_GORKA HERMOSA
AMAYA VALDEMORO_28
LABURRAK_30
33_ARRIARAN GOIKOA
KAIXO GAZTETXO_34
36_UDAL ZERBITZUAK
37_TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIAK



# a modo de despedida

Parece que fue ayer….., y ya han pasado 16 años desde que, de la mano del entonces alcalde Ramón Arbizu, asumiera el compromiso personal de dedicar mi trabajo a las labores de la gestión municipal.

Todo un periodo de vida que ha contado con cuatro corporaciones, y multitud de compañeros de viaje que detrás de su esfuerzo, buen hacer y absoluta entrega, dedicación, y con la ayuda de muchísimos urretxuarras, se ha podido conseguir que Urretxu sea un pueblo más próspero, mejor ordenado, con mayor calidad de vida y mejor preparado para afrontar los retos que el futuro le depara.

La historia ratificará los aciertos y desaciertos de esta etapa, pero sin duda a la vista está, y lo tengo que reconocer humildemente así, que Urretxu, en este periodo, ha dado un paso de gigante, más que muchos de su entorno, en mejora de la calidad de vida de sus habitantes, que es en definitiva lo que entiendo debe perseguir un Ayuntamiento para con sus vecinos.

Poco queda ya de aquel Urretxu gris y sucio, con tasas de desempleo del 22%, donde industrias y viviendas se confundían a lo largo del caso urbano y donde el llegar a fin de mes era todo un problema económico, también en el Ayuntamiento. Afortunadamente, y gracias al trabajo de muchos, este pueblo ha despuntado y ha alcanzado unas tasas de calidad y bienestar dignas de elogio.

El balance a mi modo de ver, no puede ser más que positivo, reconociendo también que queda mucho por hacer, aunque estoy seguro de que los proyectos encauzados, las nuevas normas y la situación económica serán aprovechados por nuevos equipos que mantendrán viva la llama de una puntera gestión local.

Muchos episodios vividos se agolpan en mi mente, y mucho es también lo que he ganado como persona en estos años, en esta escuela de la vida que es el Ayuntamiento. Los logros que más satisfacción me producen, son por ejemplo, la gestión y consecución de Mugitegi, una realidad industrial en Urretxu que aglutina a más de 700 empleos, los nuevos y ya consolidados bidegorris, el desafío local contra el servicio militar con pena impuesta de dos años, mi dimisión de la vicepresidencia de Udalbiltza, -creo que el tiempo me ha dado la razón-. También creo que debo destacar, el urbanismo en general, las casi mil viviendas sacadas al mercado, la apertura de plazas y parques, los nuevos equipamientos: Centro de Día, polideportivo, nuevo frontón, piscinas municipales, biblioteca, sala de exposiciones, probaleku, Kazetagune, nuevo Gainzuri, Haurreskola, Labeaga Aretoa, Garbigune de Descarga…, la peatonalización, la rehabilitación del casco histórico, la mejora de la convivencia vecinos-establecimientos hosteleros, el disco y libro sobre Iparragirre y su futuro museo, que son realidades constatadas hoy y que se suman a este nuevo Urretxu creado en los últimos años.

Como aspectos de mejora creo que la vivienda y los problemas derivados del tráfico son los temas que necesiten de mayores soluciones y donde probablemente deberíamos de habernos aplicado más. Estoy seguro de que la nueva corporación afrontará con prontitud y resolución estos retos. También debo recordar el triste episodio vivido en mi primera legislatura, la muerte del concejal Iñaki Beitia, algo que nos marcó a todos y a quien personalmente eché en falta, en un especial momento político por tratarse de un hombre de palabra que vino a trabajar por Urretxu.

Otra asignatura pendiente en Urretxu, extrapolable al resto del país, es sin duda la de la convivencia entre personas e ideas y la normalización política.

La asunción de todos los derechos humanos para todas las personas es una máxima que ha de mantenerse firme por cuestión de principios democráticos. Ojalá Urretxu y Euskal Herria, más pronto que tarde, amanezcan un día llenas de libertad y sepamos convivir en este maravilloso país. El compromiso personal mío y de otros muchos, será el de trabajar por ello desde el lugar donde cada uno se encuentre, es nuestra causa.

Eskerrik asko denori eta beti arte.>

***Pello Gonzalez***



# HAUTESKUNDEAK



M27






**eusko alkartasuna**

Eusko Alkartasuna de Urretxu nos presentamos a las elecciones municipales, con un grupo de hombres y mujeres, varias de ellas independientes, con el objetivo de seguir liderando el futuro del municipio en los próximos cuatro años. Nuestro equipo, liderado por Joxe Mari Lete y José Ángel Lizarraga, combina juventud, experiencia y dedicación y es el mejor preparado para afrontar con garantía los retos que Urretxu tiene planteados.

Es por ello que los problemas de los urretxuarras formarán parte de nuestra agenda. Así, trabajaremos por la consecución de las nuevas viviendas proyectadas, nuevo vial, mejora del tráfico y los aparcamientos, preparación de nuevos suelos industriales, culminar las reformas urbanas proyectadas, seguir mejorando en el área social, desarrollo de nuestra cultura, nuestra lengua, la promoción del deporte, nuevas infraestructuras como la nueva ikastola, museo de Iparragirre, casco histórico…y tantas y tantas iniciativas que con la ayuda de todos pretendemos desarrollar.

El próximo día 27 volvemos a decidir el futuro de Urretxu. Es el momento de que elijas si quieres seguir avanzando con nosotros en la convivencia entre todos, en el diálogo, en los consensos, en la pluralidad y en el desarrollo social y económico de nuestro pueblo.

Urretxuk merezi duelako, Urretxu aurrera. Hau da gure taldeak zabaldu nahi duen mezua. EA izan da azken urte hauetan Urretxuk bizi izan duen hobekuntzaren arduradun nagusiena. Datozen hauntesku-deei begira, Eusko Alkartasunak zerrenda ireki du, pertsona independienteak eta ekintzaileak biltzeaz gain, gaztetasuna, esperientzia eta gaitasuna irizpide, talde bikaina osatuz.

Joxe Mari Letek eta Jose Angel Lizarragak lekukoa hartuko dute, beraien gidaritzapean EAk egitasmo garrantzitsuei ekingo dio: etxebizitza berriak, errepidea, zirkulazioaren eta aparkalekuen hobekuntza, lurzoru industrial berriak prestatzea, kaleen eraberritzearekin amaitzea eta kultura nahiz euskara sustatzeaz gain, azpiegitura berriak martxan jarri, hau da, ikastola berria, Iparragirreren museoa... eta abar luze bat.



*Jose M.ª Lete Azpiazu*

las listas elaboradas por EAJ-PNV, es uno de los valores añadidos más importantes de nuestra candidatura. Es un grupo dispuesto a trabajar por el pueblo de Urretxu. Reunimos juventud y experiencia, reunimos formación académica, y la formación académica tanto o más importante que las anteriores, la de la vida. Reunimos también experiencia en el ámbito municipal. Sin duda, es la candidatura más preparada.

*NUESTROS OBJETIVOS PARA EL AYUN - TAMIENTO DE URRETXU:*

1.- Apaltasunez, humiltasunez, baina konplejurik gabe, alkatetza lortu nahi degu. Oraingo honetan, gure Herriko hauteskundeetara, gu, EAJ-PNV bezela, Alkatetzara joateko aukera daukagu.

La experiencia adquirida estos últimos años ha sido vital, y sabemos lo que queremos. Con ilusión y sin miedo, estamos dispuestos a escuchar la palabra de los Urretxuarras y estamos deseosos de trabajar a su disposición.



2.- Transparencia. Este ayuntamiento debe cambiar el estilo de gestión actual. Estos últimos años, las posibilidades de participación de los propios concejales ha sido muy complicada. Por lo tanto, huyendo de gestiones de alcaldes personalistas, buscamos la participación.

3.- Koordinazioa.- Urretxu eta Zumarragak, ia 18000 biztanleko herrien arazo berberak dauzkagu, baina aldiz, ez dauzkagu beraiek eduki ditzaketen aurkera berdinak, gure koordinazio faltak ahultzen gaituelako.

Debemos coordinarnos para resolver los problemas de tráfico, desarrollar conjuntamente áreas de servicios sociales, cultura y juventud, buscar suelo industrial, analizar las necesidades urbanísticas del municipio y un largo etc.

4.- Queremos un pueblo de calidad, necesitamos una revisión de la accesibilidad hacia los barrios altos. Atendiendo a un desarrollo sostenible, tenemos que aprovechar primero el terreno que ya tenemos desarrollado. Queremos un municipio abierto hacia Gipuzkoa, Euskadi y Europa con la mejora de las infraestructuras para el transporte. Queremos que Urretxu sea un municipio solidario para con las personas necesitadas, y para con nuestros mayores. Queremos disfrutar en el municipio y con el municipio, desarrollando nuevas instalaciones para la juventud y nuevas zonas deportivas. Queremos priorizar el desarrollo de las viviendas de carácter social.

Eta guzti hau, emakume eta gizonen arteko berdintasunean oinarritua.

*Itziar Agirre Berriotxoa*

Herrigintzan lan egiten duen multzo sozial zabal eta konprometituaz osaturiko Urretxuko Ezker Abertzale indarberrituak badu datozen lau urteetarako proiektu eta lan tresna: Urretxu eta Zumarragako Herri Diagnosia, bi herriotako eredu soziala, eredu fisikoa, euskara eta kultura aztergai, Urretxu eta Zumarragako herrigintzan aritzen den talde eta agente esparru zabal baten partehartzearekin, bi herriotako ikuspegi bateratutik eginiko aurrekaririk gabeko lana.

Lan ildo garrantzitsuenak, honakoak:
-Urretxuarrek udaletxearenganako konfiantza galdua berreskura dezaten lan egin nahi dugu, herritarren partehartzea bultzatuz.
-Urretxu eta Zumarragako Udalen

### LEGISLATURA EN TRANSITO

finaliza una legislatura y eso suele suponer en la mayoría de las ocasiones, un momento para el balance, de autocomplacencia para quien ha gobernado, de critica para quien ha ejercido la tarea de oposición.

El grupo municipal socialista prefiere denominarlo como una legislatura en tránsito, porque quedan grandes asuntos pendientes para los ciudadanos y ciudadanas de Urretxu, alejándonos de esa crítica absurda que siempre se suele hacer a quien ha gobernado.

Nosotros siempre hemos querido sumarnos a las cosas que están

arteko elkarlan estrategikoa perspektiba bakarretik.
- Eskualdearen Garapenerako bidean, langile eta lanpostuen defentsa aktiboa. Estrategikoki negoziazio bidea ireki Euskal Herriko Korporazio industrial handiena den MCCrekin. Zoru industriala helburu espekulatzaileen arabera erabiltzea saihestu.
- Merkataritza txikiaren defentsa, azalera handiko merkatal zentroei bidea itxiz.
- Nekazaritza eta abeltzaintzari bultzada eman, kalitatezko produktuen ekoizpena suspertuz eta sare komertzial propioak landuz.
- Etxebizitza politikaren gestioa esku pribatuetatik, entitate publikoetara pasa: lurzoru publikoa eta eraikitzaile kooperatibak, gazteentzako modulu konpartituak, baxu eta lokalen ordenantza, etxebizitza hutsen eta berrien alokairurako politikak sustatu...
- Euskara Biziberritzeko Plana Nagusia oinarritzat hartuta, haur eta gazteengan fokalizatu eragin-esparrua, erakargarriak diren euskara hutsezko kultur ekimenak elkarlanean antolatuz. Herriko ikus-entzunezko euskarazko komunikabideak bultzatu.
- Kulturari eta konkretuki Kafe Antzokia bezalako proiektu bati balio estrategikoa ematen diogu. Herrigintza dago jokoan.
- Arazo sozialak detektatzeko behatokia sortu, herriko talde eta agente sozialen partaidetzarekin eta informazio iturri eraginkorrak aktibatuz.
- Etorkinen integrazioan, komunikazio ezaren arazo sakona gainditu, etorkinak ezagutu egin behar ditugu eta beraiek gu eta gure herria.
- Eguneroko lana eta gizartean errotutako ingurumen ereduan sinisten dugu: bizikleten alokairuak, aparkaleku eta bidegorriak erregulatzean, AHTrik ez eta tren sare tradizionalean...

*Informazio zabalagoa, www.orainurretxu.blogspot.com bisitatuz.

*Ezker Abertzalea*



bien hechas y criticar las que no compartimos, más allá del clásico binomio, gobierno versus oposición.

Hemos tratado de realizar una oposición constructiva pero ello no obsta para haber mantenido posiciones distantes y firmes cuando así lo hemos querido razonable para el bienestar de nuestros conciudadanos, y es que creemos que la legislatura es de tránsito, cuando quedan grandes asignaturas pendientes:

- Abrir el Ayuntamiento a la participación real de los ciudadanos, las asociaciones, las inquietudes reales. Urretxu tiene que ser un municipio mayor de edad, que deja tomar decisiones a sus habitantes en las cosas más importantes de la vida municipal.

- Trabajar por el acuerdo y el consenso, ampliando los mismos y no rompiendo las mayorías de gobierno y de acuerdo. La lamentable aprobación de las normas de planeamiento urbanístico nos indican cómo no se deben de hacer las cosas, ante una manera de gobernar agotada, que todos esperamos que no se reproduzca más allá de las mayorías de gobierno que se formalicen.

- Por supuesto redoblar los esfuerzos municipales sobre tres ejes de trabajo estratégicos, como son la reindustrialización de la zona, sólo posible a través de un trabajo comarcal, la mejora de las políticas de bienestar y sociales, especialmente para nuestros mayores y convertir a Urretxu en un municipio emblemático en las políticas del desarrollo sostenible.

Y definitivamente apostar por la paz, la reconciliación y la normalización políticas, también desde el municipalismo, con el único instrumento democrático, que es el diálogo y el acuerdo. Por eso estamos sólo en una legislatura en tránsito.

*Gemma Zabaleta Areta*



partido popular

El Partido Popular en Urretxu presenta como cabeza de lista de su candidatura a Begoña Pereira Anduaga fue ya conoce lo que es la vida municipal y la labor de concejal. Los puntos básicos en los que se apoya su proyecto para Urretxu son:

1. Presentar a un candidato como Begoña, con vocación de trabajar por el pueblo y cerca de sus ciudadanos, abierta a sus preocupaciones e inquietudes.

2.- Potenciar las ayudas a las familias con el fin de fomentar la natalidad también a nivel local.

3.- Mejorar los planes de accesibilidad, hacer un pueblo transitable para todos, en especial para los que tienen dificultades físicas. Potenciar igualmente las ayudas a los disminuídos físicos y psíquicos.

4.- En el apartado de la juventud trabajar la prevención contra las drogas desde las edades más tempranas, teniendo en cuenta la fácil accesibilidad a las drogas y que cada vez desciende más la edad a la que los jóvenes empiezan a consumir droga. Ofrecer verdaderas alternativas de ocio para ellos, fomentar el deporte ....

5.- Desarrollar la zona industrial de Irimo buscando empresas que quieran venir a este punto y fomentar así el empleo y desarrollo industrial de Urretxu, evitando la fuga de empresas.

6.- Impulsar la construcción de viviendas de protección oficial. Paliar la dificultad, sobre todo de los más jóvenes, para acceder a una vivienda propia.

Este es el programa con el que nos vamos a presentar y con el que vamos a pedir el apoyo de los vecinos de Urretxu.



*Begoña Pereira Anduaga*

*ESKUALDEAREN GARAPENA*

Concretamente en Urretxu, creemos totalmente necesaria la revitalización industrial de la zona de Irimo. Hay que desarrollar una política industrial activa. Potenciar el empleo público.

*ETXEBIZITZA*

1. Gravar con un 100% en el IBI de las viviendas vacías.
2. Que todas las viviendas que preven las NNSS sean en régimen de alquiler. En definitiva, creación de un parque público de viviendas en alquiler.
3. Suscribir con el Gobierno Vasco un convenio para la puesta en marcha del programa BIZIGUNE (Programa de alquiler de viviendas vacías)

*EUSKARA*

Biziberritze planarekin jarraitzea. Euskaraz programazio kultural erakargarri bat proposatzen dugu.

*KAFE ANTZOKIA*

En principio lo vemos con buenos ojos, aunque creemos que primero se debe socializar la idea ante los agentes culturales y sociales del municipio, y también ponerlo a la par con otras carencias culturales y juveniles que vemos en los municipios.

*PARTICIPACIÓN CIUDADANA*

Creemos que la política se debe hacer desde abajo hacia arriba, todo para el pueblo, pero CON el pueblo.

Los Ayuntamientos deben crear canales para la participación ciudadana en la vida política municipal.

*DERECHOS HUMANOS*

Ratificamos nuestro compromiso absoluto con la defensa de los derechos humanos. No puede haber proceso de paz ni profundización democrática si no está fundamentada en el resto de los derechos humanos.

*BI UDALEN ARTEKO HARREMANAK*

Creemos que los temas urbanísticos y de tráfico que afecten a los dos municipios deben decidirse en un foro o comisión conjunta, con representantes de los dos Ayuntamientos. No podemos dejar el tema en manos de los alcaldes que en estos cuatro últimos años ni se han mirado a la cara. Estas situaciones tienen que terminar, por que los únicos perjudicados son los ciudadanos y ciudadanas de Urretxu y Zumarraga. Proponemos que al menos mensualmente, se reúnan las comisiones de Urbanismo de los dos Ayuntamientos para TRATAR Y DECIDIR CONJUNTAMENTE LOS ASPECTOS URBANISTICOS Y DE TRAFICO QUE AFECTEN A LOS MUNICIPIOS.

*INGURUGIROA*

Creemos que antes de hacer campañas de sensibilización, los Ayuntamientos debemos de dar ejemplo.
Nuestra línea de actuación se basa principalmente en las tres Rs: reducción, reutilización y reciclaje, a las que añadiremos una más: Recuperación.

*BIENESTAR SOCIAL*

El primer paso, desde luego, disponer de personal técnico con formación en temas de inmigración que pueda poner en marcha las políticas necesarias para la integración de inmigrantes en nuestros municipios.

El Ayuntamiento debe garantizar que las personas mayores tengan una vida digna.

*IGUALDAD*

Creemos que se ha hecho un buen trabajo en Urretxu y Zumarraga en el plano de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres, y por ello es debido en gran parte, a la labor que ha desarrollado la asociación pro-mujer ERALDATZEN.

Ahora en esta nueva legislatura que entra, es el momento de implementar el Plan de Igualdad de oportunidades en Urola Garaia, y para ellos vemos necesario que exista la figura de un técnico de Igualdad.

Para ello creemos necesario también que el Ayuntamiento de Urretxu cree el Area o la concejalía de Igualdad, para que exista un personal político que se encargue del desarrollo de las medidas en cada municipio y de la coordinación con este Agente.



# erase una vez...



… discurría el Otoño del año: 1896, y nacía un hermoso niño en la casa n.° 16 de la calle Iparragirre de esta localidad de Urretxu; denominada “Factorekua”.

En su años mozos, dicho niño conoció a una hermosa joven de Zumarraga. Trabajaban los dos en la misma fábrica de junco y mimbre: “Hijos de Juan Bautista Busca”.

A los 20 años de edad ya vivían casados en Urretxu, en la dirección arriba indicada; donde nacieron los primeros cuatro hijos. Posteriormente se trasladaron a vivir al barrio de Eizaga de Zumarraga; concretamente a la casa “San Gregorio txiki”. Aquí nacieron los cinco hijos restantes, entre los cuales se encuentra este que os narra esta normal y corriente historia.

Al tiempo me casé y yo también pasé a vivir de Zumarraga a Urretxu; donde llevo viviendo casi cuarenta años casado con una urretxuarra, feliz y contento y sin ningún tipo de complejos.

Aquí viene el momento de aclarar el porqué de todo esto que os he contado. Mi intención no es otra que el de colaborar en llegar a mentalizarnos en considerar que los problemas de ambos pueblos los padecemos todos por igual.

Estamos todos entremezclados; incontables matrimonios de historia semejante a la mía, puestos de trabajo en el pueblo vecino, niños en colegios, cuadrillas compuestas de jóvenes de ambos pueblos, ambulatorio, geriátrico y hospital compartidos, etc., etc. …
… planteadas así las cosas, no sería difícil el reconocer que los problemas de una parte , repercuten también a los de la otra. Por ejemplo: es de todos conocido el tan comentado tema de la variante que Urretxu no ejecutó en épocas pasadas; bien por falta de visión de futuro, bien por falta de medios económicos, etc., etc., …

De lo que descuidaron aquellos, no es justo culpar a las generaciones actuales. La cuestión es que estamos como estamos en una situación poco fácil de solucionar; a no ser que enfoquemos los problemas entre los dos pueblos, y busquemos las soluciones menos malas para el disfrute de todos.

En lo sucesivo no estaría de más, que los Ayuntamientos se compusieran de miembros que tuvieran visión de conjunto, para una convivencia más correcta.
Saludos.>

**Luis Azpitarte Pildain**




# urretxu TXUkun

***El tema que traemos hoy a Kaixo no está exento de polémica y periódicamente lo vemos en los distintos medios de comunicación. Se trata de la convivencia, difícil muchas veces, todo hay que decirlo, entre los perros de compañía y los usuarios de parques y jardines.***

Recientemente, dentro de la campaña "Urretxu txukun" a petición de la comisión de Servicios Sociales y Sanidad, y a cargo de la comisión de Urbanismo, se pusieron seis carteles para indicar en ciertos lugares del municipio la no conveniencia de que los perros hicieran sus necesidades en zonas de césped donde habitualmente había niños jugando o que podían ser lugares de esparcimiento para sentarse en la hierba o pasear. Estas zonas fueron concretamente el Liceo, donde existe desde hace un año aproximadamente una zona de mesas en la que se quería potenciar el disfrute del verde por parte de los usuarios, la zona del hogar del jubilado y la ikastola.

Pues bien en algún caso, se pusieron por la mañana y por la tarde los carteles habían desaparecido.

La idea era concienciar a la población y mas concretamente a los dueños de animales de compañía de la necesidad de que exista una convivencia entre los animales y los potenciales usuarios de las zonas verdes, teniendo en cuenta, además que tal y como se recoge en la ordenanza municipal en vigor no todas las zonas verdes son adecuadas para que los animales hagan sus





*"Udal-ordenantzak dioenaren arabera jabeak derrigortuta daude beren animalien kakak jasotzera"*

necesidades, estando obligados los dueños, en todo caso, a recoger las deposiciones de sus animales, principalmente por el tema sanitario.

Desde la comisión de Servicios Sociales y Sanidad, están convencidos de que no se actúa con mala fe aunque frecuentemente se reciben quejas de la existencia de cacas de perro en el bidegorri, sino que se trata de un desconocimiento de la normativa, creyendo incluso algunos dueños de animales que las deyecciones de los mismos son beneficiosas para el verde, en forma de abono.

Esta campaña, "Urretxu Txukun", seguirá en el futuro, no se sabe todavía qué acciones se llevarán a cabo, pero en todo caso, tenemos que lograr que TODOS podamos disfrutar de las zonas verdes de Urretxu.>

***M.ª Carmen Viedma***

## URRETXU LIMPIO

Duela gutxi, "Urretxu Txukun" kanpainaren barruan, Gizarte eta Osasun Batzordeak eskatuta, eta Hirigintza Batzordearen kontura, sei kartel jarri ziren herriko hainbat tokitan, hain zuzen ere jendeari jakinarazteko umeak jolasean ibiltzen diren belardietan edo jendea eseritzeko nahiz paseatzeko izan daitezkeen berdeguneetan ez dela komeni txakurrek kaka eta txixa egitea. Zehazki esanda, Lizeoan, jubilatuen egoitzan eta ikastolan jarri zituzten kartel horiek.

Herritarrak kontzientziatzea zen asmoa, eta bereziki, lagun egiteko animaliak dituen jendeari ikustaraztea elkarbizitza egon behar duela berdeguneak erabil ditzaketen biztanleen eta animalien artean; gainera, kontuan izan behar da, **udal-ordenantzak dioenaren arabera, berdegune guztiak ez direla egokiak animaliek kaka edo txiza egiteko, eta gainera, jabeak derrigortuta daudela beren animalien gorozkiak jasotzera, batez ere osasunaren gaiarengatik**.

"Urretxu Txukun" kanpaina hor izango dugu gero ere; DENOK gozatu behar dugu Urretxuko berdeguneekin.

# kaleko iritziak

*Maite Quevedo*
*M.ª Carmen Viedma*



## EMILIA ARROYO

A mí me parece que los perros no deberían andar por los jardines. Y, desde luego, el que manche que recoja, ¿no?

Me parece bien que haya sitios donde puedan estar niños y perros al mismo tiempo. Yo no tengo perro; mi suegra sí. Hay que decir que pocos dueños recogen lo que dejan sus animales.

## IÑIGO ELIAS





## SARA ARRIZABALAGA

Errespetu falta handia dago. Lotsagarria da udaletxeak kartelak jarri eta hauek berehala desagertzea. Bestalde, kartelek esaten zutenarekin ados nago, ideia ona iruditzen zait.

## Zer iruditzen zaizu txakurrak lorategietan sartzea?

### ¿Qué te parece que los perros entren en los jardines?

Txakurrak dituzten guztiak ez dira berdinak. Esan beharra dago batzuk oso txukunak direla, baina ez gehiengoa. Ez nituen kartelak ikusi baina ondo iruditzen zait txakurrak eta haurrak zelai berean ibiltzeko aukera bultzatzea, garbitasuna mantentzen bada.

## JULI RODRIGUEZ





## MIGUEL GOMEZ

Txakurren jabeek kontu gehiago izan beharko lukete. Jardin batzuetan haurrek ezin dute sartu ere egin.

Me parece bien que a los que tenemos perros se nos exija que seamos limpios, pero eso sí, que los carteles vayan acompañados de papeleras para ello. La gente, en general, no recoge; yo creo que hay falta de costumbre.

## MARISA CANO

**XALI y SHERA**





# EUSKAL abizenak euskal grafiaz

*Egiteko erraza eta denbora gutxi eskatzen duena*

Euskara Biziberritzeko Planaren barruan, Urretxu eta Zumarragako euskara zerbitzuek ekimen berri bati ekin diote duela gutxi.

Erdarazko grafiaz idatzita dauden euskal jatorriko abizenak euskarazko grafiaz jartzea da helburua.

***Zer egin behar da eta nora joan behar da horretarako?***

Izen-abizenen grafia euskaratzeko tramitea bake epaitegian egin behar da, eta honako agiri hauek aurkeztu behar dira: Nortasun Agiria eta horren fotokopia; jaiotza agiri literala (Bake Epaitegian eskatu behar da) eta errolda-agiria (udaletxean eskatu behar da). Baina nolanahi ere, Euskara Zerbitzutik bidera dezakegu hori guztia.

***Ba al dakizu nola idatzi zure abizena?***

Garrantzitsua da ezertan hasi aurretik norbere abizena euskaraz nola idazten den jakitea. Izan ere, Euskaltzaindiak araututa du hori, eta abizena euskal grafiaz idazteko-tan hark esandakoa bete behar da. Zalantzarik izanez gero, Euskaltzain-diaren web orrian begira dezakezu (www. euskaltzaindia.net) edo Euskara Zerbitzura jo, telefono zenbaki honetara deituta: 943 03 46 01.>

***Jexux Mari Alberdi***

Hona hemen adibide batzuk:

Aguirre - Agirre
Ascasibar - Askasibar
Ayastuy - Aiastui
Aranceta - Arantzeta
Berriochoa - Berriotxoa
Echaniz - Etxaniz
Echeverria - Etxeberria
Garcia - Gartzia
Idiaquez - Idiakez
Inchausti - Intxausti
Jaca - Jaka
Lecuona - Lekuona
Ormaechea - Ormaetxea
Peñagaricano - Peñagarikano
Querejeta - Kerexeta
Soraluce - Soraluze
Urcelay - Urtzelai
Yurrebaso - Iurrebaso
Zanguitu - Zangitu




## apellidos vascos en grafia vasca

Los servicios de euskera de ambos ayuntamientos han puesto en marcha una campaña para poner en euskera los apellidos de origen vasco escritos en grafia castellana.

Para ello, es importante consultar en la página web de Euskaltzaindia (www.euskaltzaindia.net) cómo debe escribirse el apellido, ya que para cualquier modificación es necesario respetar la normativa aprobada por dicha academia. También puede realizarse la consulta y el posterior trámite llamando al teléfono 943 03 46 01.

# lehiaketak

## argazki lehiaketa




GAIA: A Atala: Librea
B Atala: Herrikoa: Zumarraga eta/edo Urretxu.

TEKNIKA: Koloredun argazkia edo argazki zuri-beltza, edozein teknika erabilita.

Lanak eskura entregatu edo postaz bidali beharko dira, **irailaren 14ko eguerdiko 12ak baino lehen**,
honako helbide honetara:

Zumarragako Udala
Argazki lehiaketa
Euskadi plaza, 1.
20700 ZUMARRAGA

*TEMA: Apartado A: Libre*
*Apartado B: Local: Zumarraga y/o Urretxu*

*TECNICA: Fotografía en blanco y negro o color, sin límite de téc - nicas.*

*Las obras se entregarán en mano o bien por correo, **antes de las 12 horas del día 14 de Septiembre**, en la siguiente dirección:*

*Ayuntamiento de Zumarraga*
*Concurso Fotográfico*
*P/ Euskadi, 1*
*20700 ZUMARRAGA*

**SARIAK / *PREMIOS:***

GAI LIBREA / *TEMA LIBRE:*
- Argazki zuri-beltza / *Blanco y negro:*
  1. saria: 210 € eta trofeoa
  2. saria: 150 €
  3. saria: 90 €
- Koloredun argazkia / *Color:*
  Goiko berdinak / *igual que el anterior*

HERRIKO GAIA / *TEMA LOCAL:*
- Argazki zuri-beltza / *Blanco y negro:*
  1. saria: 210 € eta trofeoa
  2. saria: 150 €
  3. saria: 90 €
- Koloredun argazkia / *Color:*
  Goiko berdinak / *igual que el anterior*

## Pintura lehiaketa

Lanaren gaia eta egiteko modua egilearen aukeran egongo dira.

Lanak eskuan ekarri nahiz postaz bidaliko dira, **irailaren 7ko eguerdiko 12ak baino lehen**, honako helbide honetara:

Kultur Etxea
XIX. Pintura Lehiaketa
Jauregi kalea 19
20700 URRETXU

El tema de la obra y el procedimiento a realizar serán de libre elección del autor/a.

Las obras se entregarán en mano o bien por correo **antes de las 12 horas del día 7 de septiembre** en la siguiente dirección:

Casa de Cultura
XIX Concurso de Pintura
C/ Jauregi 19.
20700 URRETXU




**SARIAK / *PREMIOS:***

| | | | |
|---|---|---|---|
| 1. saria: | 1.000 € | 1. premio: | 1.000 € |
| 2. saria: | 600 € | 2. premio: | 600 € |
| Herriko lan onenari: | 400 € | Mejor local: | 400 € |

# 2007




## iparragirre saria

Lehiakide bakoitzak, gehienez ere, bi lan aurkez ditzake hizkuntza eta arlo bakoitzeko; gaia librea izango da.

Lanak eskuan ekarri nahiz postaz bidal daitezke, **2007ko irailaren28an eguerdiko 12ak baino lehen**, honako helbide hauetara:
Ohiko korreoa:

Kultur Etxea
Iparragirre Saria 2006
Jauregi kalea, 19
20700 URRETXU

Zumarragako Udaletxea
Iparragirre Saria 2006
Euskadi enparantza, 1
20700 - ZUMARRAGA

*Cada concursante podrá presentar un máximo de dos trabajos por idioma y modalidad, siendo el tema libre.*

*Los trabajos se podrán entregar en mano o por correo, **antes de las 12 horas del día 28 de septiembre de 2007**, en las siguientes direcciones:*
*Correo ordinario:*

*Casa de Cultura*
*Iparragirre Saria 2006*
*C/ Jauregi, 19*
*20700 - URRETXU*

*Ayuntamiento de Zumarraga*
*Iparragirre Saria 2006*
*Pza. Euskadi, 1*
*20700 ZUMARRAGA*

**SARIAK / *PREMIOS:***

Hizkuntza eta arlo bakoitzean sari bakarra izango da:
SARIA: 600 €

*Se establece un premio en cada idioma y modalidad:*
*Premio: 600 €*

## kale pintura lehiaketa

**DATA: 2007ko urriak 7**

GAIA: Lanak lehiaketa egunean bertan egin beharko dira kalean: Zumarragako Euskadi plazan eta Renfeko trintxeran, edo Urretxuko Iparragirre plazan eta Areizaga kalean.

TEKNIKAK ETA FORMATUA: Lanen neurria gehienez 1 X 0,81 metrokoa izango da, teknika librea izango delarik. Lanak egiterakoan edozein oinarri erabili ahal izango da, baina lana euskarri gogor batean jarri beharko da aurkeztu aurretik. Lanak egiteko beharrezko tresna guztiak egileek ekarri beharko dituzte.

LANEI ZIGILUA JARTZEA: Erabiliko diren euskarriak Urretxuko Labeaga aretoan zigilatuko dira lehiaketa egunean (Labeaga kalea, 20.zkia.) , goizeko 9etatik 10etara.

***DIA: 7 de octubre de 2007**.*

*TEMA: Los trabajos deberán realizarse al aire libre, en la Plaza de Euskadi y trinchera de Renfe de Zumarraga o en la plaza Iparragirre y calle Areizaga de Urretxu el mismo día del concurso.*

*TECNICA Y FORMATO: Las obras se podrán realizar en técnica libre. El soporte deberá ser rígido y no superior a 1 x 0,81 m. Los participantes deberán acudir al concurso con los útiles necesarios para llevar a cabo sus trabajos.*

*SELLADO DE LAS OBRAS: Los soportes para la realización de las obras deberán ser sellados en el Teatro Labeaga de Urretxu (c/Labeaga, 20) entre las 9:00 y 10:00 horas del mismo día de la celebración.*




**SARIAK / *PREMIOS:***

- 1.saria / *premio* ........ 600 € eta garaikurra / *y trofeo*
- Akzesita / *accesit* ........ 300 €
- Akzesita / *accesit* ........ 300 €
- Herriko lanik onenaren saria / *Mejor local* ........ 300 € eta garaikurra / *y trofeo*
- 16 urtetik beherako gazteak(2 sari) / *menores de 16 (2 premios)* .. Material artistikoa

*Inork ezingo du sari bat baino gehiago jaso.



# 25 urtez musika eta mendi zaletasuna suspertzen

***Sekundino Esnaola musika eskolak eta Ostadar mendi elkarteak 25 urte bete dituzte. Musika eta mendi zaletasuna suspertzen lan izugarria egiten darraite, aurten, urtemuga behar den bezala ospatzeko asmoz, ekitaldi ugariren antolaketan murgildurik.***

## *Secundino Esnaola Musika Eskola*

Secundino Esnaola musika eskolako egoitzan egin dugu hitzordua Josune Agirre, gaur egungo zuzendari eta irakaslearekin. Aldaketarik nabarmenetaz galdetu diogunean, egoitzena erantzun du. "Zelai Arizti ikastetxean hasi ginen, gero jubilatuen egoitzan jarraitu eta gaur egun, duela 12 urtetik hona Legazpi dorretxearen ondoko eraikinean gaude".



*Josune Agirre, Zuzendaria*

Ikasketei dagokionez, berriz, hezkuntza sistema aldatu zenetik, Sekundino Esnaola Musika Eskolak musika irakaskuntza ez arautua eskaintzen du, eta, hortaz, musika ikasketetan sakondu edo jarraitu nahi dutenek herritik kanpora irten behar dute.

> **"Nuestro objetivo es impulsar todo tipo de música"**

Ikasle kopuruak ere izan du aldaketa, hasieran, 200 ikasle baziren gaur egun, 600, 23 irakasleen gidaritzapean. Gorunzgo joera honek, berriz, badu bere alde txarra, espaziorik eza, hain zuzen. Dena den, hemendik denbora gutxira arazo horrek irtenbidea izan dezake, Josunek dioen bezala: "Arrakasta handia duen dantza ikastaroa, Zumarragako kultur etxe berrira aldatzeko asmoa dugu, baita perkusio gela ere.

Guztira 23 gai jorratzen dira Sekundino Musika Eskolan. Umeen adinei dagokionez, 4 urtetatik 14 urte bitarteko umeentzako ordutegiak beteta daude. Azken urte hauetan trikitixa, txistua, bibolina, akordeoia, orkestra eta konbo taldeak osatu dira. "Gure asmoa musika kalera ateratzea delako" dio Josunek. Ikasleen arrakasta ere nabarmentzekoa dela azpimarratu du irakasleak: "Arrasateko akordeoi lehiaketan Eli Iztueta ikasleak urrezko domina lortu zuen. Andoaingo piano jaialdian, berriz, parte hartu zuten 12 ikaslek oso ondo aritu ziren".

Orainarte musika tresnak alokatzeko aukera gutxi zeuden, baina azken bi urte hauetan bakoitzetik bina erosi dituzte. "Umeek 8 urte betetzen dituztenean erabaki behar dute zein musika tresna jo eta askotan ez dute segurtasunik. Gure eskolako tresnak erabili ditzazkete erabakia hartu aurretik" azpimarratzen du Josunek.

Sekundino Musika Eskolak, bere 25. urteurrena behar den bezala ospatzeko ekitaldi zabala antolatu du. Ospakizunen zerrenda logotipo lehiaketarekin hasi zuten, eta Maika Uli izan zen irabazlea. Ikasleekin irteera egin zuten Kursaalera "Romeo eta Julieta" ikuskizunera. Eta honela beste hainbat ekintza kurtsoa amaitu bitartean. Sekundino Esnaola musika eskolan ez da bakarrik musika klasikoa jorratzen, jazz, rock-a eta musika modernoa ere bultzatzea dute helburu. Hori dela eta, Euskal Herrian lehen aldiz antolatzen den musika moderno lehiaketa ospatuko da ekainean. Bertan, Euskal Herriko musika eskola guztiak parte hartuko dute bi egunez eta hirugarrenean, irabazleek kontzertua eskainiko dute. Udaberriko kontzertuak ere eskainiko dituzte ekainaren 4tik 9ra bitartean.



## Ostadar Mendi Taldea

Oargui-Izaspi mendi taldeko zenbait lagunek Ostadar Mendi Taldea sortu zuten 1982an. Urte bat beranduago, lehendabiziko txangoei ekin zieten. Beraz, aurten 25 urte betetzen ditu mendizaletasuna suspertzen duen elkarte honek. Hori dela eta, beraien egoitzara hurbildu eta diapositibak ikusten topatu ditugu zenbait bazkide, egin dituzten irteerak oroituz eta komentatuz.

Ostadar Mendi Taldeak mendira irteerak egiten hasi zenean duela 25 urte, bi autobuskada biltzen zituen. “Jendeak ez zuen gaur egungo aukerarik, ez kotxerik, mendira joateko materialik eta abar. Ostadar bezalako elkarteak mendira eramaten zintuen” diote bazkideek. Gaur egun Ostadar osatzen duten bazkideen adin batazbestekoa 40-50ekoa da, hasieran, berriz, 25 urtekoa. Gaur egun oso gazte gutxi daude, beraien kasara, lagunekin joaten baitira mendira. “Ez dago gazte errebelorik eta elkartea jendeak nahi duena izango da” dio bazkide beteranoetako batek. Gazteei zuzendutako zenbait saiakera bultzatu dituzte, rockodromoa, adibidez, baita eskalada ikastaroak ere, baina ez dute arrakasta handirik izan.

Antolatzen dituzten mendi txangoei dagokionez, urte bukaeran kalendarioa egiten dute, abuztu eta abenduan ezik, beste hamar hilabeteetan irteerak antolatuz. “Urtean bitan 2 egunetako irteerak egiten ditugu. Mendi txango hauek errepikatuak dira, ez dago iada ezagutzen ez dugun mendirik” adierazi digu bazkide batek. Irteera egin aurretik, bazkide batzuk lehenago egiten dute ibilbidea, horrela, eskursioak dokumentatu egiten dituzte, mapa eta deskripzioekin eta beraien web orrian sareratu. ezinhobea dela diote: “Talde desberdinak sortzen dira eta jendearekin harremanak sortzeko balio dute. Mendiak zintzo bihurtzen zaitu. Mendia izango da toki bakarra non jende guztia elkar agurtu eta laguntzen den”.

Pasadizorik izan duten galdetu diegunean, 1983an gertatutakoari

> **“Invitamos a la gente a participar en esta celebración prestando su material”**

Teknologia berriei buruz galdetu diegunean, GPS-a erabiltzen dutela diote, behelainoa dagoen egunetarako. Mendi ibilbide guztietan abiapuntua eta amaiera puntua desberdinak dira, hau da, toki batetik atera eta beste toki desberdinean amaitzen dute. Mendian sortzen den giroa buruz hitzegin digute. Nafarroara egindako irteera batetan, 7 bat lagun behelainoa zela galdu egin ziren eta Frantzian azaldu ziren. Hurrengo goizean egunkarian argitaratu omen zen berria. “Hasieran, askotan



## Sekundino Esnaola Musika Eskola y Ostadar cumplen 25 años

### Musika Eskola

La educación musical es uno de los objetivos principales de Sekundino Esnaola Musika eskola. Así lo demuestran los conciertos que nos ofrecen a lo largo del año y que tienen como objeto “sacar la música a la calle”, tal y como nos ha contado Josune Agirre, directora y profesora del centro. Por este motivo, estos últimos años han surgido diversos grupos: trikitixa, txistu, violín, acordeón, orquesta, etc. En la actualidad la escuela cuenta con 600 alumnos y 23 profesores. Para celebrar estos 25 años han organizado diversos actos que os anticipamos a continuación: cursos, concierto de jazz, opera dirigido a niños,


Luis Albisua, Jose Luis Zaldua, Juan M.ª Gabilondo, Juanito Urzelai eta Jon Mikel Intxausti, Ostadar-eko kide batzuk





galtzen ginen, orain berriz, aurrez prestatzen ditugu txangoak, erantzunkizun handia baita" adierazi digute.

Txangoez gain, urtero, mendi astea antolatzen dute azaroan. Anjel Etxeberriaren omenezko haur ibilaldia, diapositiba emanaldiak eta hitzaldiak prestatzen dituzte ekimen honetarako. Maiatzean, Iñaki Beitiaren omenezko ibilaldian ere parte hartzen dute, beste zenbait talderekin batera. Federatu txartelak tramitateaz ere arduratzen dira. Mendirako materiala ere badute, eskalatzeko, pioletak, kanping dendak eta abar, bazkideentzat doan. Kuota ordaintzearen truke urte osoan erabiltzeko aukera izanik. 500 mapez osatutako liburutegia ere badute Zumarragako Iparragirre kalean duten egoitzan. Espazio hau beste elkarte batzuekin batera erabiltzen dute, baina laister Zumarragako kultur etxe berrian egoitza berria izatea espero dute.

25 urte hauek era berezian ospatuko dituzte Ostadar elkarteko bazkideak. Beraien helburua oroimenak eta lekukotasunak biltzen dituen liburu bat idaztea da. 25 urteetan bazkide izan diren mendizaleek eskainitako informazioa, pasadizo, istorio eta bizipenen deskripzioak argitaratuko dira bertan, argazki eta guzti. "Errez ulertzeko modukoa" diote. Material asko bildu ezkero, liburuan azaltzen ez diren 300 argazkiekin (gutxigorabehera), proiekzio bat prestatu eta jende aurrean eskaintzea nahi dute. Ospakizunean artean, 40 irudiz eta mendirako aspaldiko materialez osatutako erakusketa ere antolatzeko asmoa dute. Momentu honetan, irudien aukeraketa egiten ari dira eta materiala duen jendeari partehartzera gonbidatzen dute.

Ostadar mendi elkarteak 1997an, www.ostadar.org, web gunea sortzen hasi zen. Horretan ere aurrerakoiak izan dira eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren saria jaso zuen 2002an.

Jarrai dezatela urte askotan horrela lanean.

Herrian badaude elkarte gehiago aurten ere 25 urte betetzen dituztenak: Goiargi abesbatza eta Udal Euskaltegia. Aurrerantzean izango dugu auker beraiekin hitzegiteko.>

***Kizkitza Ugarteburu***

concurso de música moderna, en el que participarán escuelas del País Vasco, etc.

## *Ostadar*

Varios socios de OARGUI-Izaspi crearon la asociación de montaña Ostadar en 1982. Desde entonces han organizado muchísimas salidas montañeras cuyas descripciones y planos han sido recogidos en la completísima página web www.ostadar.org. La celebración de este aniversario tan especial tendrá lugar en noviembre con la Semana de Montaña. Ostadar solicita la colaboración de los ciudadanos de ambos pueblos, con el objeto de publicar un libro que reúna los testimonios y anécdotas de los montañeros. Parte del material lo utilizarán para la publicación, pero también tienen intención de ofrecer una proyección y celebrar una exposición.

También hay otros colectivos que este año celebran su 25 aniversario, como la Coral Goiargi y el Euskaltegi municipal. Más adelante tendremos la ocasión de conversar con ellos.



**oso pertsonala**

*Izen-abizenak:*
***Lourdes Esnaola Garate***

*Adina:*
***52 urte***

*Ogibidea:*
***"Gureak" eko profesionala***

# LOURDES ESNAOLA

## “Adimen urrikoak ondo ezagutzera eta, ondorioz, diren bezala onartzera ausartuko bagina, gauzak asko aldatuko lirateke”

*El desconocimiento por parte de la sociedad en general, sobre las capacidades, las habilidades y los sentimientos de una numerosa colectividad de incapacitados con la que convivimos a diario, está determinado por esa imagen ya preconcebida con la que nos conformamos cada vez que les miramos.*

***Noiztik zabiltza pertsonen ezin - tasunaren munduan murgildu - ta?***

Dagoeneko 28 urte bete ditut. Garai hartan ni aisialdi munduan aritua nintzen eta entzun nuen Legazpiko lantegian langile bat behar zutela eta aukeraketara aurkeztu nintzen. Orduan Bixente Lasa zen hango burua eta bi froga pasa behar izan nituen, bat idatzia eta ahozkoa bestea, zorionez biak gainditu eta horrela hasi nintzen. Esan beharra dago GUREAK 1975ean erakunde bezala sortu baldin bazen ere, Legazpiko lantegia aurrreko urtetik martxan zegoela jada, probintziako bigarrena izan zelarik Bergarakoaren atzetik.

***Bilakaera izugarria jasan duzue ordutik hona ezta?***

Izugarria bai, pentsa Legazpin bakarrik hasieran 13 pertsona besterik ez geundela eta gaur egun berriz, 70 inguru gaude. Sartzeko prozedura ere asko aldatu da. Hasieran adin guztietako jendea hurbiltzen zitzaigun, gaur egun ordea, eskola bukatu bezain pronto etortzen dira, beraz jende gaztea izaten da eta gainera eskolan normalizazio eta integrazio saiakera prozedura serio batetik pasatutakoak.





***Zein da zehazki zuk betetzen duzun lana?***

Profesionala bezala gauza asko egitea tokatu zait, baina egun, besteak beste lantegia ezagutaraztea da nire betebeharra, hau da, eginkizun mota desberdinak erakutsi, prozesuan sartzen lagundu, egin beharko duten lana erakutsi eta behar duten laguntza eskaini, jakina. Esan beharra dago ere, Legazpiko lantegi honetan bi motako jarduerak egiten direla, bat okupazionala deritzana eta bestea guztiz laborala dena. Lehenengo kasuan eta izenak zerbait adierazten duen bezala, "langile" hauek bere aisialdia lan batzuk eginez betetzea du helburu. Lan horrexegatik gratifikazio bat jasotzen dute, bertan garraioaren eta bazkarien ordainketa barne delarik. Bigarren kasuan, langile formalak dira, bere soldatarekin eta, noski, seguru sozialarekin eta guzti, beste edozein langile bezala. Lana da, bi kasutan, sozializatzeko eta normalizatzeko erabiltzen den tresna. Hasieran hiru hilabeteko moldaketa-epea gainditu behar izaten dute eta ondoren, izandako esperientzia ezagututa eta beraien asmoak eta interesak mahai gainean jarri ondoren, denon artean erabakitzen da bi modalitate horietatik zein den egokiena langile horrek aurrera eramateko.

***Zer nolako baldintzak dituzue langile bat onartzeko?***

Orokorrean %35 ko ezintasuna eduki behar dute ziurtatuta. Legazpiko lantegian ezintasun mentala edota psikikoa dutenak hartzen ditugu zehazki. Badugu hala ere langile pare bat ezintasun fisikoa dutenak. Bere eginkizuna oso indibidualizatua dago, bakoitzak bere ahalmenak eta bere trebetasunak ditu eta guzti hori da gehi pertsona bezala dituen beharrak eta asmoak elkarturik, hizpide beste. Gainera esan beharra dago ere Aenor-en kalitate azterketa jasaten dugula eta horrek norberaren lanarekiko ardura eta profesionalitate maila handia eskatzen dio bakoitzari.

> *"¿Quién no ha dicho alguna vez "yo eso no sé o no puedo hacerlo" ? ¿Cuántos somos los que todavía no nos atrevemos a programar el vídeo? o ¿cuántos los que necesitamos una explicación más detallada para poder entender la factura de la luz o el teléfono?; y, sin embargo, nadie duda de nuestra capacidad, ¿por qué de la de ellos sí dudamos?"*

hartzen dena egingo duen lana erabakitzeko orduan. Lana bilatzeko, hasiera batean, "atzegi", gurasoen elkartea, izan zen Urola nahiz Bellota lantegietatik lortu izan zuena, egia esan, garrantzi handia izan zuten guzti hau martxan jartzeko orduan; gaur egun berriz, Orkli eta bereziki Goizper dira lana esku zabal eskaintzen diguten enpresak.

***Nolakoak dira beraiekiko dituzuen harremanak, nagusia eta langileen arteko motakoa?***

Beraiek oso garbi dute langileak direla eta hori izateak suposatzen duena, adibidez egonkortasuna, puntualitatea eta ardura, besteak

***Egongo da hala ere, beste tokietan bezala, lana egiteko ez dela jaio pentsatzen duenik.***

Justu une honetan abian dugu "indibidualizazio eta laguntza plan pertsonala" deritzan egitasmoa. Horren bitartez lana 8 orduetan egiteko prest ez dagoenak edo horrek bakarrik bere barnea asetzen ez duen kasuetarako prestatu izan da. Dagoeneko, martxan dago Legazpikoaz gain beste hiru lantokietan ere. Egitasmo horretan lau ordutako saioak betetzen dituzte eta gainontzeko denbora beste ekintzekin osatzen da, informatika, e.a.. Horretarako lehenengo sei hilabete hauetan 4 tailer prestatu dira eta hurrengo sei hilabetetara-

ko beste sei izango dituzte betetzeko. Datorren 2008. urterako bukatutzat egotea espero da eta orain arteko lan kultura barruan barneratuko dugu filosofi berri hau ardatz nagusi bezala, lana bai baina bere bizitzako beste esparruetarako laguntza pertsonala ere.

***Horrek zuen lana asteburuetara luzatzea eskatuko luke?***

Ez, norberaren aisialdia bere esku geratzen da, hala ere, hor dago nahi duenarentzat hortaz oso egoki arduratzen den "atzegi" guraso eta laguntzaileen elkarteak eskaintzen dien zerbitzua.

***Lehen esan duzun bezala, nahiz eta denak 18 urtetik gorako helduak izan, agian denek ez dute behar den bezala soldata irabaztearen garrantzia baloratuko, kasu horietan gurasoen ardura eskatzen da?***

Sartu berriekin badago aurrera eramaten den egokitze prozesu bat. Ez da ahaztu behar eskola girotik datozela eta ez dutela lan mundua gehiegi ezagutzen; orduan, beraiek, bere gurasoak eta gutako profesional batzuen artean osatutako taldean, lana egitea zer den, zer suposatuko dien, arauak betetzearen ezinbestekotasuna, soldata irabaztearen garrantzia eta abar, sakonki eztabaidatzen da ongi ulertu dezaten asmoarekin; hala ere, baditugu bakarrik bizi direnak ere, beraz, kasu bakoitza desberdina da eta norberaren ezaugarrien arabera jokatzen dugu beti ere.

***Non datza horrelako eginkizuna ondo funtzionatzearen sekretua, pazientzi kopuruan?***

Ez da pazientzia kontua, pertsona ezagutzea eta onartzea baizik. Denok gara desberdinak, denok dugu eginkizunen konkretu bat egiteko orduan muga bat edo beste; hori behin ezagututa eta onartuta, hau da, beste edozein pertsona bezala ikusiz, ez dago pazientzia kopuru berezirik eduki beharrik.

***Eta beraiek, zenbateraino jabetzen dira bere ezintasunez?***

"Psikikoak" edo Down-aren sindromedunek adibidez, bere mundu berezia dute eta ez dira gehiegi horretaz ohartzen, zoriontsuak direla esango nuke; baina gainontzekoek bai, oso argi dute gizarteak baztertzen dituela, ez ditugula ulertzen; baina, era berean ere, oso ondo dakite zein gauzetarako diren gai eta zeintzuetarako ez; agian, horregatik dira hain laguntzaile beraien artean, elkartasuna dute bere ekintza guztien motorea, izugarri laguntzen diote elkarri.

***"Atzegik" kaleratutako azken kanpainan, begiratu bai baina ez omen ditugula ikusten zioten, zer litzateke ikusten ez duguna?.***

Ba hori, pertsona. Betaurrekoak aldatu beharko genituzke. Begiratzerakoan gure aurreritziek eratzen diguten itxurarekin bakarrik konformatzen gara. Desinformazio handia dago mundu honen inguruan; behin baino gehiagotan entzun dugu gure lantegian "baina hori egiteko kapazak dira?, hori beraiek bakarrik egin dute?" eta antzeko esaldi asko eta asko, eta hor dago koxka. Ondo ezagutzera eta, ondorioz, diren bezala onartzera ausartuko bagina, gauzak asko aldatuko lirateke.

***Hori lortzea asko kostatuko dela uste dut, urrutira joan gabe, duela gutxi egunkarietan azaldu zen nola Iraken bere burua akabatzen duten atentatuak egiteko atzeratuak ziren bi gazte erabili omen zituzten, zer esan daiteke horren aurrean?***

Komentariorik gabe

***Gauza serioak alde batera utzita seguru bizi izandako 28 urte horietan izango zenituen egoera irribarretsu bat baino gehiago, ezta?***

Bat baino gehiago bai. Burura etorri zaidana kontatuko dizut, gainera urretxuarra da bera; ba egun batean Setien gotzain ohiaren bisita zela eta, gure lantegia erakusten ari ginela M. I. izeneko gure langilearen ondora iritsi ginen, honek buelta eman eta Setienek zeraman eraztun handian josi zuen begirada eta, hara non, bat batean, gotzainaren eskua hartu eta "Ay, para mi. A casar contigo" esan zion eta, noski, han ibili behar izan genuen denok ezkontzaren "paripea" egiten barregurea aguantatu ezinik.>

***Jon Castrillo***



***"El secreto no está en tener más o menos paciencia con ellos, sino en aceptar a esa persona tal como es, pues ante todo son personas, con sus dificultades sí, pero personas al fin y al cabo, como nosotros"***



Argazkia: Ramón Esnaola

# "Sociedad de socorros mutuos Iparraguirre"

**Bajo el nombre del ilustre bardo de la villa, se creó el 25 de julio de 1920 la Sociedad de Socorros Mutuos Iparraguirre, que perduró hasta finales de la década de los 70.**

Desde antiguo han existido movimientos similares a este que nos ocupa cuyos fines eran bastante parecidos, aunque se denominaran de distintos modos: cofradías, gremios, hermandades, montepíos, etc.

Para hacernos una idea de lo antiguo de estos sistemas podemos citar el de la Cofradía del Espíritu Santo de Pescadores de Zarauz, lo que sería la primera Cofradía de Mareantes (hombres que trabajaban en el mar; pescadores, marinos...) que se fundó entre finales del siglo XII y principios del XIII. Será a mediados del siglo XVIII, en los inicios de la revolución industrial, cuando este tipo de movimientos darán lugar a los montepíos y sociedades de socorros mutuos.

En cuanto a los montepíos, el primero de ellos fue el montepío militar fundado por 1761 al que siguieron montepíos profesionales como el de abogados de Zaragoza (1771) y montepíos de artesanos y obreros. Los montepíos solían orientarse a cubrir riesgos de larga duración, seguros de supervivencia, seguro de invalidez y de vejez; mientras que las sociedades de socorros cubrían normalmente riesgos de corta duración, como enfermedad, pero cubriendo la asistencia médica, farmacéutica y la entrega de alguna cantidad. Aplicado al lenguaje de hoy día, cubrían las bajas. La sociedades de socorros nacen de la mano de los movimientos de resistencia obrera, como sistema de protección social de los trabajadores frente a la incipiente industria y su falta de cobertura social.

> **"Sociedad de Socorros Mutuos "Iparraguirre" 1920ko uztailaren 25ean sortu zuten. Gure eskuetara heldu da 20 artikuluz osatutako arautegia"**

Con todos estos antecedentes podemos ver claramente que no era una fórmula nueva lo que ofrecía esta sociedad de Socorros Mutuos Iparraguirre. Para hacernos

una idea de la evolución de este tipo de sociedades vayan estos datos: en 1887 existían en España 664 asociaciones, en 1904 eran ya 1.691 y 4.517 en el año 1916.

Y es en 1920, cuando el domingo 25 de julio, 35 hombres crean en Urretxu la mencionada Sociedad. Y no sólo la crearon sino que desarrollaron un completo reglamento, que constaba de 20 artículos y otro adicional.

Démos un repaso al reglamento, en el que no faltan algunas curiosidades visto desde la mentalidad de hoy día: Para ingresar como socio se requería haber cumplido los 16 años y no exceder de 60 (los mayores de 60 años podían ser socios a condición de que el resto de su familia lo fuera), tener buena vida y costumbres, disfrutar de buena salud y llevar un año de residencia en el término municipal.

Hablábamos de curiosidades y una de estas nos da idea de lo que ha subido la vida desde la fundación de la sociedad, la cuota de socio ascendía a 1 peseta. Esto daba derecho a cobrar unas indemnizaciones en caso de enfermedad. El médico era quien tenía que dar un parte en el que se acreditaba enfermedad o imposibilidad de trabajar y se abonaba al afectado una peseta y cincuenta céntimos diarios durante un máximo de dos meses.

Los crápulas y hombres de mal vivir no tenían nada que hacer en la Sociedad de Socorros Mutuos Iparraguirre, pues estas indemnizaciones no se pagaban en caso de enfermedades venéreas o embriaguez. Tampoco se pagaba en caso de accidente de trabajo o de mano airada. Lo de mano airada significa en lenguaje de hoy día liarse a tortas. Ahora, en el caso de que el iniciador de la pelea fuera "el otro" se podía cobrar la indemnización.

Al finalizar cada semestre se le daba un repaso a las cuentas y si había números rojos se cubrían entre todos los socios, y si el saldo era positivo se iba añadiendo lo sobrante a un fondo de reserva.

En el artículo 8 de este reglamento se dice que la sociedad no se disolverá mientras tenga 12 miembros que quieran mantenerla. Las Juntas Generales de la Sociedad se celebraban los días 1 de enero y 29 de junio después de vísperas, función religiosa que se celebraba hacia el anochecer.

**"Bazkide bakoitzak hilean pezeta bateko kuota ordaindu behar zuen, gaixotzekotan kalte ordaina kobratu ahal izateko. Ederki garestitu da bizitza ordutik hona!"**

Los cargos en la Junta Directiva eran "de obligado cumplimiento". Esto quiere decir que si te nombraban secretario tenías que hacer de secretario aunque no supieses hacer la o con un canuto.

Si te tocaba de presidente abrías y cerrabas las sesiones procurando que "haya orden y compostura en las mismas" . La forma de las votaciones de las distintas propuestas era de levantados o sentados.

El domicilio de esta sociedad era la casa consistorial, y en caso de disolución, los fondos o haberes sociales se aplicarían a socorrer a los pobres de la villa.

Dicho reglamento de la Sociedad de Socorros Mutuos se aprobó el 25 de julio de 1920, siendo el presidente de la misma Alejandro Zabalo y Vicente Gómez su secretario.

Como podemos observar en la fotografía del XXV aniversario de la Sociedad de Socorros Mutuos Iparraguirre, la misma gozó de una excelente salud, dado el número de personas que aparecen en la misma. No olvidemos que fueron 35 hombres quienes fundaron la mencionada sociedad. Pero el periplo de la misma no terminó ahí, puesto que estuvo funcionando hasta finales de los 70, por lo que parece que llegaron a celebrar su cincuenta aniversario, aunque son pocos los datos que tenemos de la actividad de la misma al ser una asociación privada. Sabemos que su sede inicial fue la casa consistorial pero después con el tiempo tuvo su sede en la Sociedad Iparraguirre, donde actualmente se encuentran las oficinas de Ugassa, en la calle del mismo nombre.>

**Idoia Narbaiza**




Argazkia: Pablo Gómez

## "sociedad de socorros mutuos iparraguirre"

Socorros Mutuos izeneko elkarteak lehendik baziren ere, industrializazio garaian asko hedatu ziren, langileen gizarte baldintzak hobetzeko asmoz. Urretxun ere izan zen horrelakorik Sociedad de Socorros Mutuos Iparraguirre sortu baitzuten 1920ko uztailaren 25ean. Elkarte horretako kideek hilean pezeta bateko kuota ordaintzen zuten, eta gaixotuz gero eguneko pezeta eta berrogeita hamar zentimo kobratzen zituzten. Hori bai, oso ondo zehaztuta zuten nor izan zitekeen bazkide, zein baldintza bete behar zituen, zenbat diru eta zenbat denboraz kobratu ahal izango zuten. Elkarteak, esan digutenez, 1970 hamarkada bukaera arte iraun zuen.

# gorka hermosa

## “Afizioa ofizio bilakatuta”

Oso gaztetan hasi zen Gorka Hermosa akordeoia jotzen. Hasiera batean gustuko denborapasa zena afizio bilakatzen hasi zen, eta gaur egun ofizio du. Urretxun “Tangosophy" bere diska berria aurkeztu zuen, eta nahi izanez gero bere web orrian www.gorkahermosa.com lortu daiteke.

***Noiztik akordeoia jotzen?***
12 urterekin hasi nintzen Javier Ramosekin ikasten.

**oso pertsonala**

*Izen-abizenak:*
***Gorka Hermosa***

*Adina:*
***30 urte***

*Jaioterria:*
***Urretxu***

*Bizilekua:*
***Mogro (Cantabria)***

***Zergatik instrumentu hori eta ez beste bat?***
Ia kasualitatez... Nire lagun Jon Lekuonak jotzen zuen eta berak animatuta apuntatu nintzen.

***Zeintzuk dira akordeoiaren berezitasunak?***
Musika tradizionalean enkasilatutako instrumentu bat da, beste edozein musika mota joz gero edozein harrituta uzten duena.

***Nola definitzen da jotzen duzun musika?***
Akordeoiarekin ohikoa ez den musika egiten saiatu izan naiz beti. Musika originala, berria nire instrumentuarentzat. Denetarik egin dut: hasieran musika garaikidea, gero pop, folk, jazz, techno, chill-out, fusion eta mila gauza desberdin... denak nire nortasunera egokitzen saiatuz.

***Zer ematen dizu akordeioiak?***
Bizi-poza: bizipen pilo bat, lagun mordo bat, asko bidaiatzeko aukera... eta gainera... ogibide dut!

***Musikatik bizi al daiteke?***
Ez da batere erreza, batez ere hasieran, baina bai, bizi daiteke.

Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan musika ikasketak “Ohorezko Sariarekin” amaitu ondoren bere musika Friedrich Lips, Elsbeth Moser, Jacques Mornet, Eric Pisani, Jean Luc Manca, Carlos Iturralde, ... bezelako



irakasleekin lantzen joan da. Urteetan zehar sari ugari irabazi ditu, baina berak gogoko du RTVE Orkestra Sinfonikoko lehen akordeoi jole bakarlaria izan dela esatea (F. Paul-Dekker zuzenduta) eta Europan zehar kontzertuak nonahi ere eman dituela ezin da aipatu gabe geratu. Gainera, musika mota ugari jotzen dituenez musikari ezagun askorekin lan egin du; Germán Díaz, Baldo Martínez, La Mari (Chambao), Carlos Soto (Celtas Cortos)... eta diska askotan parte hartu ere bai.

***Zenbat entsaio ordu behar izan dituzu hona iristeko?***

Ezin konta... ez dira bakarrik instrumentuarekin pasatzen dituzun orduak, musika egiteko bizipenak eduki behar dira, asko irakurri behar da, asko maitatu,...jendeari zerbait interesgarria kontatu ahal izateko. 24 orduko ogibidea da musika.

***Zer sakrifikatu duzu musikarengatik:***

Euskal Herrian bizi ahal izatea.

***Gaur egun zer egiten duzu?***

Santanderko Kontserbatorioko irakaslea naiz eta kontzertuak ematen ditut Estatuan batez ere, baina urtean zehar hainbat aldiz atzerrira ere bai. Orain diska berreiaren aurkezpenarekin nabil.

***Asko bidaiatzen al duzu musika dela eta? Gogoko al duzu hori?***

Bai, asko, gehiegi! Ikaragarri gustatzen zait bidaiatzea, baina asko bidaiatzea baino gehiago pereza ematen didana da nire etxean egoteko denbora ia sekula ez edukitzea.

***Nola ikusten duzu zure etorkizuna?***

Ikaragarri zoriontsu naiz orain, urte askotako lanak bere fruituak eman dituelako...; erritmo honetan hazten jarraitzearekin ase egongo nintzateke! Oraintxe oso baikorra naiz nire etorkizunarekin...

***Zure karreran zer izango litzateke gorenera iristea?***

Askotan jendeak galdetzen dit ea famoso izatera iritsi nahi dudan, eta nik beti esaten dut egiten dudan musikarekin ezinezkoa dela...zortez! Nire "idoloak" jende gehienak ez ditu ezagutzen: Richard Galliano, Egberto Gismonti, Astor Piazzolla, Daniel Barenboim, Itzhak Perlmann, Mogens Ellegaard,... eta nire helburu utopikoa horien mailatik oso urrun ez egotea litzateke... eta hori ere ia helduezina da!



*Foto: Juventudes musicales de España.*

*Junto con Paul-Dekker en concierto con la O.S. de RTVE Foto: Juventudes musicales de España.*



***Bertara iristeko aukerarik ikusten al duzu?***

Musikan ez dago sekula toperik jartzerik. Nik aspaldian pasa nituen gaztetan jarri nituen nire mugak, eta horiek lortu izan ditudanean beti sortzen dira muga berriak, ilusio berriak, etengabeko kontua da!

***Zuk daramazun bizimoduarekin, oro har ondo mantentzen al dira familia eta lagunekiko harremanak?***

Ohituta daude. Ni horrelakoa naiz eta maite nauenak...konprenitzen nau. Agian ama da gutxien ohitzen dena: egun guztia bidaiatzen egotearena oso gaizki darama. Suposatzen dut ama guztiek nahi dutela egonkortasuna beraien semeentzako... eta nire egonkortasuna... nire bizitza ezegonkorra da!

***Kanpoan bizi zarenetik zer da jaioterritik faltan gehien botatzen duzuna?***

Koadrila eta familia.

***Herriko zerbait zure bizilekura eramateko aukera edukiko bazenu, zer eramango zenuke?***

Euskera.

***Zer gustatuko litzaizuke egunero ikustea?***

Itsasoa... eta azkenean lortu dut!! Santander ondoan dagoen kostako herri txiki txiki batean bizi naiz itsasoaren pare-parean... zoragarria da!

***Zein da zure ametsa?***

Horrela jarraitu ahal izatea.>

***Estitxu Gomez Asensio***

## Gorka hermosa, la aficion convertida en oficio

Gorka Hermosa nació en 1976 en Urretxu. Estudió con Javier Ramos, Thierry Paillet y Amaia Liceaga, finalizando sus estudios superiores de acordeón en el Conservatorio "Jesús Guridi" de Vitoria con "Premio de Honor" y perfeccionándolos posteriormente con maestros como Friedrich Lips, Elsbeth Moser, Jacques Mornet, Eric Pisani, Jean Luc Manca, Carlos Iturralde, ... Ha sido el primer acordeonista en actuar como solista de la O.S. de R.T.V.E (dirigida por F. Paul-Dekke), pero su inquietud musical le lleva a aprender de otras músicas (jazz, folk, techno, pop...), actuando con músicos como Germán Díaz, Baldo Martínez, La Mari (Chambao), Carlos Soto (Celtas Cortos)... en conciertos por Europa. Ha colaborado en la grabación de una decena de cds, y ha participado en más de una docena de trabajos discográficos. En mayo ha venido a Urretxu a presentar su último trabajo "Tangosophy" que ya se puede adquirir a través de su página web: www.gorkahermosa.com.

# amaya valdemoro madariaga



## “Recuerdo mis carreras por Santa Bárbara”

### *Estatuko saskibaloiko erreferentea den Amaya Valdemoro Madariagak, urretxuar odola darama bere zainetan*



Mujer alta, rubia, guapa, pelo rizado largo, ojos marrones y con un tatuaje en el talón. Con esta descripción resulta difícil explicar que esta chica se dedica en exclusiva al baloncesto. Amaya es la abanderada del basket femenino en el Estado y una referencia en Europa, y tiene vinculaciones directas con nosotros, dado que su madre nació en Urretxu, donde mantiene a parte de su familia.

Por esa razón, nada más mencionar Urretxu se le vienen a la mente la imagen de su familia, de su tía Mila Madariaga y de estampas proyectadas gracias a su madre. Y además se reivindica, “soy mitad vasca y mitad madrileña, lo llevo en la sangre, pero creo también que por carácter tengo más de vasca que de madrileña”.

Amaya nos cuenta desde Samara (Rusia) que “de pequeñas íbamos de vacaciones a Urretxu y a Mondragón”. La vinculación con el deporte ha sido una constate en esta mujer. Desde los 8 años empezó a practicar atletismo y lo hizo hasta los 13 años, edad con la que empezó a despuntar en su deporte favorito, el baloncesto. “Recuerdo que estando en Urretxu mi padre me llevaba a Santa Bárbara a hacer carrera continua para seguir mis entrenamientos de atletismo. Después de correr tomábamos algo en el bar y bajábamos a casa” nos relata.

Y es que la progresión en el baloncesto fue meteórica, dado que debutó en Primera División con tan sólo 16 años, en la Selección absoluta española con 17 y con 21 años en la NBA femenina en una ciudad como Houston.









Toda esa trayectoria le ha valido para copar un extraordinario palmarés con tres anillos de la WNBA y seis ligas entre otros. Ha jugado en ciudades tan diversas como Madrid, Salamanca, Godella, Houston (USA) Americana (Brasil), Valencia y Samara (Rusia), además de conocer sedes de europeos, mundiales o Juegos Olímpicos.

Y de cada una tiene grato recuerdo, en el 2002, en el Mundial de China, donde quedaron quintas, fue incluida en el quinteto ideal del mundo. Sin embargo, a pesar de sus tres anillos de la NBA salió decepcionada del factor humano. "No viviría allí, sus valores dejan bastante que desear, eres un producto y es muy difícil asumirlo, en cambio, aquí en Rusia, la gente es más fría pero el trato humano es mucho mejor, la palabra es válida, es decir, es más parecido a nosotros". "Eso sí, el idioma es imposible, menos mal que nos entendemos en inglés" apunta. A pesar de ello Amaya reconoce que Rusia, Moscú y Samara, que está a unas dos horas al este, "todavía no se han adaptado al turismo".

A sus 30 años dice tener cuerda para seguir en el basket. "Me encanta el baloncesto, aunque he sacrificado muchas cosas por este deporte pienso continuar más allá de las Olimpiadas de Pekín 2008". Si es que apenas tiene descanso. El pasado 10 de mayo finalizó el quinto partido de la serie final de la liga rusa, partido que no pudo ganar, con lo que se queda con el subcampeonato, Amaya tiene una semanita de vacaciones, posteriormente ha organizado un campus internacional en Marina D'Or y luego jugará con la selección el preolímpico.

Y es que las Olimpiadas son un momento especial, al que todo deportista quiere llegar. Además los Juegos de Atenas'04 fueron para Amaya un homenaje para su madre debido a su fallecimiento. Por esa razón lució durante todo el torneo el 'Madariaga' a la espalda y debió darle fuerza porque cuajó un gran campeonato.

Según la descripción de su página web, Amaya es una persona muy alegre, muy amiga de sus amigos, lo da todo por ellos, muy nerviosa y bastante cabezota. Le encanta estar con gente, su tiempo libre lo pasa por supuesto con sus amigos, en el cine, en el ordenador, escuchando música, leyendo algún libro que otro, y por supuesto al teléfono. Todo ello lo reafirma su tía Mila.>

***Jabier Otermin***

## Biografía

*Nombre y apellidos:*
***Amaya Valdemoro Madariaga***

*Lugar de nacimiento:*
***Alcobendas (Madrid)***

*Fecha:*
***18 - 8 - 1976***

*Número de pie:*
***45***

*Altura:*
***182 cm***.

*Palmarés:*
***6 Ligas, 6 Copas de la Reina, 2 Supercopa, 1 Euroliga, 3 Anillos de la WNBA, 2 Medallas de Bronce en el Europeo, 2 Medallas de Plata en el Europeo Junior, un sub - campeonato Paulista***

*Debut en Primera División:*
***En 1992 con tan solo 16 años***.

*Debut en Selección Absoluta:*
***En 1993 con 17 años.***

*Debut en la WNBA (Houston Comets):*
***En 1997 con 21 años***.

*Debut en Liga Brasileña (Americana):*
***En 2004 con 28 años***.

*Debut en Liga Rusa (Samara):*
***En 2005 con 29 años***.

*Maite Quevedo*

# MARTXOAN bertsoa

Gurean Martxoak ezaugarririk badu bertsoa da hori. Duela bost urte hasi zen Martxoan bertsoa! kultur egitarauan bere lekua egiten eta orain bera da hileko protagonista. Ohi bezala, programa bete-betea eskaini zigun bertso eskolak, hainbat berritasun medio. Esaterako, herri mailako bertsolari txapelketak herri mugak gainditu eta Legazpira zabaldu da. Eta ez zabaldu bakarrik, txapela ere bertako taldeak eraman baitu.



Argazkia: Hitza

Sekula baina talde gehiagok hartu du parte aurtengo txapelketan: 13 talde; 39 lagun. Baliteke txapelketa izatea egitasmoaren baitan oihartzun gehien sortzen duen emanaldia baina ez horregatik bakarra. Bertsoa modu askotara eskaini digu bertso eskolak: bertsolaritza ikastordu bereziak, bertso afaria, Karidadeko benta, Ahots bidaztiak, bertso-ipuin kontaketa, bertso musikatuak, eskolarteko bertso-paper lehiaketa...

Martxoa joan zen baina ez bertsoa. Izan ere, bertso eskolak lanean jarraitzen du urte guztian.

**Herri mailako bertsolari txapelketa**:

1- OK (Joseba Barandiaran, Igor Iñurritegi, Ibon Sortil)
2- Egin Kantu (Amaia Iturriotz, Edurne Plazaola, Gorka Azkarate)
3- Klasikoak (Gorka Erostarbe, Gorka Ojanguren, Gorka Ganuza)

**Eskolarteko bertso-paper lehiaketa**:

LH 5-6 mailak: “Telebistako programarik gustukuena”
1-Jone Alberdi,
2-Maialen Akizu,
3-Mikel Iturriotz
Aipamen bereziak: Adrian Caballero, Arkaitz Aizpuru, Maria Iglesias, Iker Azpeitia, Jon Imaz, Beñat Torres

DBH 1, 2 mialak: “ Nire lagunik onena eta biok haserretu egin gara”
1-Amaia Iturriotz,
2- Ane Agirre,
3.- Noemi Iglesias
Aipamen bereziak: Edurne Plazaola, Idoia Mendez, Asier Oliveira, Maialen Zubillaga

DBH 3, 4:
1- Joseba Angulo,
2- Jon Ander Arzelus



# goierri - verkol

Con la victoria por 52-82 lograda contra Tabirako en su desplazamiento a Durango, el Goierri-Verkol logró el ascenso a Primera Nacional. El equipo saltó a la cancha vizcaína sabiendo que la victoria les daba el ansiado ascenso de la categoría.

Tras el éxito el equipo disfrutó de una comida, tras la cual fue recibido en los Ayuntamientos de Urretxu y de Zumarraga. El consiguiente intercambio de presentes unido al brindis dieron fin a un largo día.



*Testua eta rgazkia: Aguado*

# lore azoka



Gernikako Arbola plaza lorategi bihurtuta ikusteko aukera izan genuen apirilaren amaieran. Bigarren lore azokan parte hartu zuten zortzi ekoizleek, lore ederrenez apaindu zituzten batez guztiak. Iaz bezala, eguraldia aldeko izan zen eta jende asko hurbildu zen, bai goizean baita arratsaldean ere.

Mota askotariko loreez gain, lihoari buruzko erakusketa bat eta haurrentzako tailerrak ere egon ziren. Txikienek, primeran pasatu zuten lore sortak egiten zein hauek landatzen.

# euskal herriko itzulia urretxun

Aste Santuko oporrak tartean egon arren, ikusle ugari bildu zen Urretxun aurtengo Euskal Herriko Itzuliari hasiera emateko. Ez bakarrik txirrindularitza zaletuak, baita halako ikuskizuna galdu nahi ez zuten hainbat herritar ere.




Ehun eta laurogeita lau txirrindulariek hartu zuten herria, hogeita hiru taldetan banatuta. Udaletxe aurretik hasi zen lehen etapa eta 139km egin ostean, Santa Barbaran Amaitu zen bertan bildutakoen txalo zaparradaren artean. Bigarren egunean ere Urretxutik irten ziren txirrindulariak Karrantzarako bidea hartuz.

Ez da lan makala izan Goierri Kirol Elkarteak egin behar izan duena hau guztia antolatu ahal izateko. Beren nahia Itzulia Urretxutik iaz hastea zen, Goierriko Itzuliko 25. ospakizun urtean, baina, Segura ere ospakizunetan zenez hari egokitu zitzaion txanda eta Urretxuarrek urte bete itxaron behar izan dute. Halere, dena hain ongi atera zela ikusita, merezi izan du zain egoteak.

# urretxuko diskoa

Después de meses de trabajo, a los músicos de Urretxu les llegó la hora de grabar los dos CDs que llevarán como nombre Urretxuko Musikak. Los improvisados estudios fueron el Salón Labeaga y la iglesia de San Martín de Tours; la fecha de grabación el 11, 12 y 13 de mayo. No fue una tarea fácil, ya que fueron unos 300 los músicos que participaron en la grabación.

La idea surgió en la comisión de cultura del ayuntamiento pero éste ha contado en todo momento con un grupo de trabajo para desarrollar la misma. José Mari Lasa, Javier Arratibel, Jesús Castillejo, Patxi Urrestarazu, Gotzon Muru, Xabier Barriola, Oihane Toledo, Josune Agirre, Agurtzane Albisua, Andoni Salamero y Juan Luis Aranburu han sido los encargados de recopilar partituras de diversos compositores, reunir a los grupos musicales y decidir cual será la obra que interpretará cada uno de ellos.




En uno de los CD-s se podrá escuchar las obras de compositores urretxuarras interpretadas por agrupaciones musicales actuales; en el otro, obras de músicos de los siglos XX y XXI.

Los CDs los grabó la productora DAM (Discos A Medida) y se harán unas 3.000 copias. Además, cada CD irá acompañado de un libreto con las biografías y currículum de los participantes. El trabajo verá la luz en junio y se hará una presentación especial.

## CD 1

1 "URRETXUKO SEMEEI" — JOSE Mª IPARRAGIRRE / [illegible]
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
GOIARGI ABESBATZA
[illegible]
Bakarlaria: PATXI URRESTARAZU
Zuzendaria: JAVIER ARRATIBEL

2 "URRETXU" — RAMON ESNAOLA
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
[illegible]

3 "SALVE REGINA" — TORIBIO NAVARRO
GOIARGI ABESBATZA
Organoa: AGURTZANE ALBISUA
Zuzendaria: JAVIER ARRATIBEL

4 "STABAT MATER" — TORIBIO NAVARRO
SAN MARTIN [illegible] ABESBATZA
Organoa: MARTA MADINA
Zuzendaria: AGURTZANE ALBISUA

5 "VILLAREAL DE URRECHUA" — [illegible] URRESTARAZU
IRAITZ AGIRRE BALENDI MUSIKA TAILERRA
Zuzendaria: JESUS CASTILLEJO

6 "[illegible]" — JOSE OLAETXEA
IRIMO AZPI ABESBATZA
Bakarlaria: [illegible]
Zuzendaria: GOTZON MURU

7 "KYRIE" — JOSE OLAETXEA
SAN MARTIN DE TOURS [illegible] ABESBATZA
Organista: MARTA MADINA
Zuzendaria: AGURTZANE ALBISUA

8 "TALLER MUSICAL" — RAMON ESNAOLA
IRAITZ AGIRRE BALENDI MUSIKA TAILERRA
Zuzendaria: JESUS CASTILLEJO

9 "SANTA ANASTASIA" — EUSTAQUIO AZKARATE
SAN MARTIN DE TOURS PARROKIKO ABESBATZA
Organoa: MARTA MADINA
Zuzendaria: AGURTZANE ALBISUA

10 "TANTUM ERGO" — GASPAR [illegible]
IRIMO AZPI ABESBATZA
Organoa: MILA OSINALDE
Zuzendaria: GOTZON MURU

11 "[illegible]" — [illegible]
GOIARGI ABESBATZA
Bakarlaria: OIHANE TOLEDO
Organoa: AGURTZANE ALBISUA
Zuzendaria: JAVIER ARRATIBEL

12 "IRIMO" — CELESTINO [illegible]
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
[illegible]

13 "IPURATARRA" — CELESTINO [illegible]
IPARRAGIRRE BALENDI MUSIKA TAILERRA
[illegible]
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
Zuzendaria: JESUS CASTILLEJO

14 "HAURTXOA SEASKAN" — ANTONIO PEY
GOIARGI ABESBATZEKO EMAKUMEAK
Bakarlaria: CARMEN MENDIA
Zuzendaria: JAVIER ARRATIBEL

15 "GERNIKA, 26/4/1937" — GORKA HERMOSA
GORKA HERMOSA

16 "GOAZEN GOAZEN" — JUAN JOSE BELAUSTEGI
IRIMO AZPI ABESBATZA
Bakarlaria: OIHANE TOLEDO
Organoa: MILA OSINALDE
Zuzendaria: GOTZON MURU

## CD 2

1 "URRETXU DANTZAN" — JOSE Mª [illegible] MENDIZABAL
EDURNE ITURBE
GARBIZAR[illegible]
[illegible] BASTERRA

2 "GERTU" — DEMETRIO [illegible]
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA

3 "[illegible]" — [illegible]
IPARRAGIRRE BALENDI MUSIKA TAILERRA
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
Zuzendaria: JESUS CASTILLEJO

4 "EUSKARA" — ANDONI SALAMERO / [illegible]
KANTU [illegible]
ANDONI SALAMERO
SECUNDINO ESNAOLA MUSIKA ESKOLA

5 "URRETXUKO GAZTEAK" — MIGUEL LASA
KANTU [illegible]
[illegible]

6 "KILOMETROAK 05" — PASKUAL BALTUEN
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
GOIARGI ABESBATZA
Zuzendaria: JAVIER ARRATIBEL

7 "SHANTI" — [illegible] ZUBERO
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA

8 "[illegible]" — ROBERTO LOPEZ
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
[illegible]
[illegible]

9 "IBURRETA" — EDURNE ITURBE
SECUNDINO ESNAOLA MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAK

10 "[illegible] (KM 0582)" — [illegible] / ARANTXA GABILONDO
[illegible]
MENDIARAZ [illegible]

11 "[illegible]" — [illegible]
[illegible]

12 "EUSKADI-BUENOS AIRES 947" — HERRIKOIA / GORKA HERMOSA
GORKA HERMOSA

13 "CHECK MATE" — [illegible] / [illegible] ITURBE
[illegible] DOCS

14 "15-2" — EDURNE ITURBE
EDURNE ITURBE
[illegible]

15 "URRETXU-MARCHA" — [illegible]
IPARRAGIRRE BALENDI MUSIKA TAILERRA
Zuzendaria: JESUS CASTILLEJO

16 "GERNIKAKO ARBOLA" — JOSE Mª IPARRAGIRRE
GOIARGI ABESBATZA
IRIMO AZPI ABESBATZA
SAN MARTIN DE TOURS PARROKIKO ABESBATZA
[illegible] ABESBATZA
IPARRAGIRRE BALENDI MUSIKA TAILERRA
SECUNDINO ESNAOLA MUSIKA ESKOLA
URRETXUKO TXISTULARI TALDEA
Zuzendaria: JESUS CASTILLEJO

autorrak compositores



# arriaran goikoa

## *Siglo XVI - XX Mendea*

Llamada así por ser propiedad en el siglo XVI de la familia Arriarán, dueña de la casa Legazpi de Zumarraga. Incluso durante alguna temporada ahí vivieron sus dueños. Más tarde pasó a ser propiedad del marqués de San Millán.

Edificio totalmente transformado. Del siglo XVI sólo quedaba el dintel con su escudo picado, probablemente de la familia Arriaran. Se solían borrar los escudos cuando la casa cambiaba de propietario, pues si en el transcurso de unos 30-50 años la casa seguía con el escudo el nuevo propietario podía apropiarse de él. De ahí que al borrado se le llame "picado". Respecto al otro escudo se desconoce la familia a quien pertenece.

En los años 30 del siglo XX sus dueños solicitaron permiso para ampliar la casa, dejándola como estaba hasta hace poco.

Finalmente fué comprada para remodelarla, guardando y dejando a salvo los dos escudos existentes.>

***Koldo Argandoña***







Escudo "picado"

Arriaran familiarengandik datorkio izena, XVI. mendean bera baizen etxearen jabe, Zumarragako Legazpi etxearen jabe bera. Denboraldi batean hor bizi izan ziren jabeak. Geroago, San Millango markesa egin zen jabe.

Guztiz aldatutako eraikina. XVI. mendetik ateburua besterik ez da geratzen, armarri ezabatuarekin, seguruenik Arriaren familiarena.

Etxearen jabea aldatzen zenean armarriak ezabatu egiten ziren, izan ere 30-50 urtetan zehar etxean armarri berak jarraitzen bazuen, jabe berriak armarria eskuratu zezakeen. Hargatik, ezabatzeari "pikatu" deitzen zaio. Gaur egungo fatxadan dagoen beste armarria ez dakigu norena den.

XX. mendeko 30eko hamarkadan etxea haunditzeko baimena eskatu zuten jabeek, eta gaur egun dagoen bezala utzi zuten.

Azkenik erosi egin dute berritzeko asmotan, eta bi armarriak bertan utzita.







# KAIXO Gaztetxo!

egin kantu

***Betizuzale eta martxoso asko aurkitu nituen Urretxu ta Zumarragan zehar, kantari apartak ere bai!***
***Egin KANTU atalean parte hartzera ausartu ziren hainbat mutil eta neska. Kasting-a pasa ondoren entsaioen ordua iritsi zitzaien, bai.Urretxuko kultur etxean dantzan, abesten ikusi nituen, gero telebistan ezin hobeto agertzeko!***
***Hori bai, laguntzaile finak izan zituzten bertan, dena ondo ondo ateratzeko. Musikan eta dantzan adituak diren irakasleak izan zituzten ondoan.***

***Ana Isabel Iturbe***

Entsaio egun batetan hauetako batzuekin ibili nintzen hizketan ...



**"Ez izan gaiztoa"** eta **"September"** abestia kantatu zuen Tamara Garcia neskatilak. Berarekin batera, dantzariak. Denek La Salle ikastetxean ikasten dute.
*"Asko gustatzen zaigu Egin Kantu saioa, askotan ikusten dugu. Tamara aurkeztu zen kasting-era eta berarekin dantzatzeko esan zigun. Entsaioak eskolan eta kultur etxean egin ditugu. Gogokin gaude abesten ateratzeko, urduri ere bai!"*

TAMARA GARCIA, SARA EXPOSITO, IKER FERNANDEZ, ALAZNE MARTINEZ, CRISTINA PALMERO, eta ANA MAR LUZURIAGA



**"Bizitzeko behar dudana"** abestia kantatu zuen Ikastolako laukote batek karaokean.
*"Ikastolara bidalitako paper baten bitartez Egin Kantun parte hartzeko aukera ikusi genuen.Entsaioetan gustora ibili gara, hala ere pixkat urduri ere bagaude."*

ENEKO SALVADOR, JON ETXEZARRETA, ANE URZELAI eta EIDER ETXEBERRIA

Ikusi al zenituzten telebistan? Ze ondo ibili ziren, ezta? Gustora, haien saltsan!
Segi horrela gaztetxok!!!!!

# SECRETARIA

**_Departamentu honen erantzukizun oinarrizkoa eta nagusia Udalari lege-aholkularitza ematea da, eta era berean tokatzen denaren fede publikoa ematea._**



KOKAPENA: udaletxeko 1. solairua
ARDURADUN TEKNIKOA: M.ª Jose Begiristain Zabalo (Idazkaria)
ADMINISTRATIBOA: Arantxa Landa Azkune
TELEFONOA: 943 03 80 90

*Arantxa Landa eta M.ª Jose Begiristain saileko teknikariak*

La responsabilidad básica y general de este departamento es el dar asesoramiento legal al ayuntamiento así como dar fe pública de lo que corresponda.

- Registro de testamentos vitales.
- Registro de uniones civiles.
- Registro de parejas de hecho.
- Responsabilidad sobre las oficinas generales: registros de entradas y salidas de documentos, permisos, solicitudes, certificados, compulsas, registro civil…
- Recepción de documentación, boletines oficiales, solicitudes… y derivación posterior al departamento que corresponda.
- Asistencia a plenos, juntas de gobierno… recogiendo en acta lo acordado y derivando los acuerdos al órgano correspon diente.
- Contratación administrativa, pliegos de condiciones, notificación de adjudicaciones de obra, de suministros, servicios…..
- Redacción de ordenanzas, normativas….. siempre que no sean fiscales.
- Responsabilidad sobre el archivo municipal y el cementerio.
- Realizar el inventario de bie nes del ayuntamiento.
- Coordinación entre los distintos departamentos del ayuntamiento.>

***Irene Calvillo***



# ACUERDOS ADOPTADOS POR la junta de gobierno local

*Miren Castillo*

## acuerdos adoptados

**2006-12-29**

**"Mugi Auto Urretxu, S.L"**
Mugitegi Industrialdeko B bidean, 23-25ean auto konponketa tailerrerako jarduera eta obrak egiteko baimena ematen da.

**"Zumarraga distribuciones, S.L."**
Mugitegi Industrialdeko A kalean, 17 zkian lubrifikatzaileak merkaturatzeko jardueraren irekitze baimena onartzen da.

**EIMA, S.L:**
Mugitegi industrialdeko E bidean 26an aroztegi mekanikoaren jarduera espedientea. Tokiko Gobernu Batzarraren iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

**Fatxadak margotzeko programa: Dirulaguntzak: San Martín 13 eta 14**
San Martin 13 eta 14ko jabekideek aurkeztu duten eskariaren berri ematen da, hain zuzen ere fatxaden margoketarako egitarauari heldu ahal izateko; horretarako aurrekontua aurkeztu dute: 26.840,29 euro.
Aho batez onartu zen: San Martin 13 eta 14ko jabekideei 2.684,03 euroko dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona. Aipatutako dirulaguntza horren ordainketa lana amaitutakoan egingo da, aldez aurretik faktura edo likidazioa udaletxean aurkeztuta, eta horrekin batera ordainketa egiteko kontu zenbakia .



**Goierri, K.E.: Dirulaguntza**
Goierri K.E ari Gabon Kopako pilota partidak antolatzeko 258,75 euroko dirulaguntza ematea onartzen da.

**Goierriko Hitza: Dirulaguntza**
Aho batez onartu da 2006ko aurrekontuaren kargura 10.164 euroko dirulaguntza ematea Goierriko Hitzari. Biztanleko 1,5 euro, publizitatea barne.

**Urtarrileko kultur egitaraua**
Aho batez erabaki da, urtarrileko kultur egitaraua eta gastuen aurrekontua onartzea, besteak beste ekintza hauek egingo direlarik: antzerkia, erakusketak (krismak eta pintura), hitzaldiak, lehiaketak, xake txapelketa, DVD emanaldiak, ikastaroak (jostungintza eta egurrezko taila).

**Espetxeetarako garraioa: Laguntza**
Aho batez onartu da Urretxuko hiru familiei dirulaguntza hauek ematea espetxeetarako garraioa dela eta 2.448, 2.400 eta 1.152 euro.

**2007ko lan-egutegiak**.
Aurtengo irizpideak orain arte erabili diren berberak izango direla.
Aho batez erabaki da artxibo, bulegoak, kultur Etxe, liburutegi eta obretako brigadako langileen lan egutegiak onartzea 2007. urterako, honako baldintzapean: Zerbitzuak hala eskatzen duenean, Alkatetzak komenigarri ikusten duen edozein erabaki har dezake, beti ere Udalhitz hitzarmenean ezarritakoaren arabera.



**2007-2-5**

**Inauteriak: Egitarua eta aurrekontua**
Inauteritako egitarauaren eta aurrekontuaren berri ematen da, hain zuzen ere ondorengo jarduera hauek biltzen dituen proposamena:
- Inauterietako ostirala: Eusko Disko, Urretxu, 441,13 euro "
- Astelehen eta asteartea: haurrentzako ekintzak liburutegian, 564 euro"

# ACUERDOS ADOPtados

**2007ko urteko erakusketen egutegia**
Aho batez erabaki da 2007ko erakusketen egutegia eta horren aurrekontua onar-tzea; guztira, 7.480 euro.

**Jostungintza ikastaroa**
Aho batez onartzen da jostungintza ikastaro bat egitea 540 euroko aurrekontuarekin.

**Urretxu-Zumarraga: 2007ko antzerki egitaraua**
Aurtengo antzerki egitarauaren berri ematen da, aurreko urteetan bezala Zumarragarrekin batera egingo dena; aipatutako egitaraua urte osoan zehar banatuko da. Esan da gainera egitarau horren gastuen aurrekontua guztira 95.711 eurokoa dela; hortik 38.311 euro Urretxuri dagozkio.




**Ostegun gizen eguna**
Ohiturari jarraituz Ostegun Gizen egunean eskoletan bokadiloa banatzearen aldeko proposamena, 2.305 euroko gastu aurrekontua duena onartzen da.

**Kilometroak 2007: Dirulaguntza**
Aho batez onartu da 120 euroko dirulaguntza ematea Kilometroak 2007ko ekitaldiari.

**Ibilaldia 2007: Dirulaguntza** .
Aho batez onartu da 120 euroko dirulaguntza ematea Ibilaldia 2007ko ekitaldiari.

**Herri Urrats 2007: dirulaguntza**
Aho batez onartu da 120 euroko dirulaguntza ematea Herri Urrats 2007ko ekitaldiari.

**Sortzen-Ikasbatuaz 2007: Dirulaguntza**
Onartu da 120 euroko dirulaguntza ematea Sortzen-Ikasbatuaz 2007ko ekitaldiari.

**Gure Irratia: Publizitate kanpaina**
Onartzen da publizitatea egitea Gure Irratian, 1.102 euroko prezioan, BEZ barne.

**Euskera biziberritzeko plan Nagusia: 2006ko gastuen likidazioa**.
Aho batez erabaki da 2006ko urtean aipatutako planak izandako gastuen likidazioa onartzea eta aipatutako planak sorrarazitako gastuen likidazioa egiteko, 1.023,34 euroko zenbatekoa ordaintzea Zintzo-Mintzo Elkarteari.

**Egun baliogabeak**
Kontuan izanik Santa Anastasia eguneko jai ofizialaz gain, herrian tradizioa duten beste hainbat egun ospatzeko 2007. urtean zehar beste hainbat jaiegun egingo direla, eta ondorioz udal-bulegoak itxita izango direla, honako hau onartzen da: Uztailaren 2a eta abenduaren 13a, 24a eta 31 baliogabeko egun aitortzea helburu bakar honekin, alegia, Urretxuko Udalaren administrazioarekin lotutako obligazio edo eskubideetarako egun horietan amaitzen den edozein epemuga hurrengo egunean izan dadin.

**Trakzio Mekanikozko ibilgailuen Zergaren Errolda**
2007. urteko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuei buruzko Zergaren Errolda aztertu da; herri honetan helbideratutako ibilgailu guztiak agertzen dira bertan, ordainagirien zenbatekoa 394.532,10 eurokoa delarik; hori ikusirik, onespena ematea erabaki da, eta jende aurrean azaltzea 15 eguneko epean erreklamazioak egin ahal izateko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratuz.



**"Sociedad Madaya"**
Labeaga 33 L behean ezk. Jolas, Kultur eta Gastronomi Elkarteko Irekitze baimena ematea erabakitzen da.



**Labeaga 52 behea esk. Musikarik gabeko taberna**
Irekitze baimena ematea erabakitzen da.

**"Escayolas Goiherri"**
Mugitegi industrialdeko E bidean 29 zenbakian eskaiola biltegirako jarduera espedientea: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.
Tokiko Gobernu Batzarraren iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

**"Estudio Inmobiliario, M.I., S.L."**
S-4 Sektorean (Pagoeta auzoa) Kafetegi eta Jatetxerako jarduera espedientea: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.
Tokiko Gobernu Batzarraren iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

**Zozo Txiki, S.L.**
Areizaga 16-18 zenbakian Kafetegi, Gozotegi eta Dastapenerako jarduera espedientea: Tokiko Gobernu Batzarraren txostena.
Tokiko Gobernu Batzarraren iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

**Fatxadak margotzeko programa. Dirulaguntza: San Martin 12**
San Martin 12ko jabekideek aurkeztu duten eskariaren berri eman du alkate jaunak, hain zuzen ere fatxaden margoketarako egitarauari heldu ahal izateko; horretarako aurrekontua aurkeztu dute: 13.337,68 euro. Aho batez onartu da San Martin 12ko jabekideei 1.333,77 euroko dirulaguntza ematea, aurrekontuaren %10ari dagokiona. Aipatutako dirulaguntza horren ordainketa lana amaitutakoan egingo da, aldez aurretik faktura edo likidazioa udaletxean aurkeztuta, eta horrekin batera ordainketa egiteko kontu zenbakia.

**Urretxu eta Zumarragako udalek elkarrekin egiten dituzten jardueren ondorioz sortutako gastuen banaketa: Portzentaiak**
Urtero-urtero aztertu beharra dago Urretxu eta Zumarragako udalek elkarrekin egiten dituzten jardueren ondorioz sortutako gastuen banaketarako portzentaiak, lehendik ezarrita dagoen irizpidea finkatuz: udalerri bakoitzak ekitaldi bakoitzeko urtarrilaren 1ean duen biztanle kopuru ofiziala, alegia. Kontuan izanik INE erakundeak 2006-1-1 data hartu duela ofizialtzat, eta erakunde horren arabera Urretxuk 6.778 biztanle dituela, eta Zumarragak 10.078 biztanle aho batez hauxe erabaki da: 2007. urtean zehar Urretxu eta Zumarragako udalek elkarrekin egiten dituzten jardueren ondorioz sortutako gastuen banaketarako portzentaiak finkatzea, Estatistikako Institutu Nazionalak argitara emandako azken zenbateko ofizialaren arabera, hau da Urretxu %40,21 eta Zumarraga %59,79

**Fakturen zerrenda**
28 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 43.029,46 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.



**2007ko lan egutegiak**
udal-langileen proposamenaren arabera, aldaketa egin da lan egutegietan.

## 2007-3-5

**Nafarroa Oinez 2007: Dirulaguntza.**
Aho batez onartu da 120 euroko dirulaguntza ematea.

**Araba euskaraz 2007: Dirulaguntza.**
Aho batez onartu da 120 euroko dirulaguntza ematea.

**Korrika 15: Dirulaguntza**
Aho batez onartzen da 500 euro kostatzen den kilometro bat erostea.

**Euskal Eskola Publikoaren festa: Dirulaguntza**
Onartzen da 120 euroko dirulaguntza ematea.

**Pazko Asteko egitaraua eta aurrekontua**.
Aho batez onartzen da Pazko Asteko egitaraua onartzea baita ere Urretxuri dagokion gastuen aurrekontua onartzea, hau da 2.906.97 euro.

**Martxoan bertsoa**.
"Martxoan Bertsoa 2007" ekimenaren barru izango diren ekitaldiei dagokien egitaraua eta aurrekontua ikusi ondoren erabakitzen da egitaraua eta Urretxuri dagokion gastuen aurrekontua, hau da 1.310,84 euro.

**2007ko lehiaketak: Oinarriak**.
2007. urtean Urretxuk eta Zumarragak elkarrekin antolatu beharreko lehiaketen oinarriak eta aurrekontuak onartzen dira. Lehiaketak: XIX pintura lehiaketa, argazki lehiaketa, narratiba eta poesia lehiaketa" "Iparragirre saria", lore sariketa, gabonetako ipuin eta krisma lehiaketa, kaleko pintura lehiaketa. Aurrekontua guztira 18.923,73 euro, Urretxuri dagokion gastua 7.609,23 euro.

**Tximista Elektrizitatea, S.L.**
Mugitegi Industrialdeko B kalean 13-15 zenbakietan bulegoa jartzeko jarduera espedientea ikusi eta obra baimena ematen zaio.



**Grabados Gan, S.L.**
Mugitegi industrialdeko D bidean 44-46 zenbakietan piezak mekanizatzeko tailerra jartzeko jarduera espedientea ikusi eta obra baimena ematen zaio.

**Revestimientos Herrero**
Mugitegi industrialdean B bidean 11 zenbakian estaldure jarduera irekitzeko baimena ematen zaio "Revestimientos Herrero" enpresari.

**Gernikako Arbola 5 zenbakian pub bat jartzeko jarduera espedientea: Tokiko Gobernu Batzarraren txotena.**
Tokiko Gobernu Batzar honen iritziz bidezkoa da eskatutako baimena ematea, beti ere hartu beharreko neurri zuzentzaileak hartzen baldin badira.

**Kultur elkarteak: Dirulaguntzak**
Aho batez erabaki da 2007ko ekitaldiaren kargu, honako dirulaguntza hauek ematea ondoren agertzen diren kultur elkarteei:

| | |
|---|---|
| - Secundino Esnaola Musika Eskola | 25.879,92 € |
| - Goi Argi abesbatza: Ohiko funtzionamendua | 1.340,89 € |
| - 25.urteurrena | 1.206,30 € |
| - Bertso Eskola | 412,95 € |
| - Martxoan bertsoa | 1.310,85 € |
| " - Cine Club Butak 21 | 2.684,81 € |
| - Txiribiri euskal zizekari taldea | 1.124,52 € |
| - Aldaketa, filatelia Numismatika | 152,20 € |
| - Argazki Elkartea | 2.075,55 € |
| - Ostadar mendi taldea | 1.065,57 € |
| - Korrika kulturala | 486,54 € |
| - Karmakros antzerki taldea | |
| - Urteko jarduerak | 744,60 € |
| - Antzeslana | 1.427,80 € |
| - Txistulariak | 3.640,92 € |
| - Iratzarri dultzaineroak | 1.244,40 € |
| - Lurra | 2.377,81 € |
| - Iparragirre Balerdi Musika tailerra | 12.444,00 € |
| - Euskal jai taldea | 665,87 € |
| - Harizpi | 513,22 € |
| - Beste Batzuk | 3.567,20 € |

Dagokion ekitaldiko likidazioa aurkeztu beharko da izendatutako dirulaguntza guztia jaso ahal izateko.



**Iñaki Mendiluzeren oroimenezko XII. Txapelketa: Dirulaguntza**
Aho batez erabaki da Iñaki Mendiluzeren oroimenezko XII. Txapelketa egiteko, 215 euroko dirulaguntza ematea Urola, K.E.ri.

**Rally denboraldia: Dirulaguntza.**
Hauxe erabaki da aho batez:Rally denboraldirako 300 euroko dirulaguntza ematea.

**Goierri, K.E.: dirulaguntza.**
Honako hau onartu da aho batez: Ondorengo dirulaguntza hauek ematea Goierri, K.E.ri, beti ere honako ekitaldi hauetarako
- Txakurrarekin ehiza xehea txapelketa 203,50 euro"
- Herri arteko plater tiroketa 170 euro
"

**Trialsin: Dirulaguntza**.
Santa Barbaran egingo den Gipuzkoako Trialsin Txapelketako proba bat dela eta, Errenteriako Euskal Trial Txirrindulari kirol elkarteari dirulaguntza ematea erabakitzen da, hain zuzen ere 258 eurokoa.



**XVI Mendijur oroigarria: Dirulaguntza**
1. eta 2. urteko kadeteentzako XIV Amelio Mendijur Oroigarria antolatzeko Goierri, K.E.ri 588 euroko dirulaguntza ematea erabakitzen da.

**2008ko Argia urtekarian publizitatea sartzea.**
Aho batez onartu da Argiaren 2008ko urtekarian Urretxuko Udalaren izenean iragarki bat jartzea eta Urretxuri buruzko artikulu bat egitea, horren guztiaren prezioa 1.102 euro delarik.

**Berria: "Eskura" gidaliburuan publizitatea sartzea.**
Aho batez erabakitzen da Berria egunkariak laster argitaratuko duen "Eskura" gida komertzialean iragarki bat sartzea, horren kostua 458,20 euro(BEZ barne).

**Bitartean dendarien elkartea: Dirulaguntza**
Erabakitzen da Bitartean Urretxu eta Zumarragako dendarien elkarteari 5.200 euroko dirulaguntza ematea, hain zuzen ere 2007. urtean zehar egingo diren jarduerak antolatzeko.

**Alkatetzaren ebazpena berrestea**
Sindikatuen ordezkaritzak lan-egutegien onarpenaren aurka ezarritako errekurtsoa baztertu egin da.

**Fakturen zerrenda**
4 zk. duen fakturen zerrendaren berri eman da, 44.714,31 eurokoa; hori ikusirik, aho batez onartu da.



**Idi-proba apostua egiteko eskaera**
Aho batez erabaki da:
Apirilaren 22an idi-dema apostua egiteko herriko probalekua erabiltzeko baimena ematea, ondorengo baldintza hauek bete beharko direlarik:
- apirilaren 21a arte, larunbata, ezingo da ibilgailurik gabe utzi aipatutako gunea.
- Antolatzaileek erantzukizun zibileko poliza kontratatu beharko dute, eta udaletxe honetan aurkeztu beharko dute ikuskizuna izan aurretik.

# ekainean....
# san juan jaiak

"San Juan San Juan heldu da, sorgin begia galdu da,
galdua bada galdu bedi, sekulan agertu ez baledi!"







www.urretxu.net